



- **Mugimendu antinuklearra Alemanian** 40 urteko borroka, ekintzaileek kontatua
- **Miren Aranguren** «Feministak desagerrarazita bezala gaude bake prozesuan»
- **Lisabö** «Askatzeko, lehenik oinazean murgildu behar duzu»
- **Larrun** Joha e Pitrau, laborari menditarren lider zuberotarra (1929-1975)
- **Olatzagutiako errauskailua** Portlandeko lanpostuak ez daude hondakinei lotuta

Karlos Zurutuza kazetaria «Ezin dut mundua aldatu, baina bai hura kontatu»



**Aste
honetan...**



Beranduegi.tv



► Beranduegi datorren albistegia

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari.



► Boisen euskaraz

Zergatik euskaraz ikasi AEBetan? Idahoko Boise hirian euskaltegiko ikasleen arrazoiak entzungo ditugu, Izaskun Kortazar irakasleak grabaturiko bideo honetan.



► Joxemi Zumalabe Fundazioa

Marta Luxan eta Jokin Azpiazu Joxemi Zumalabe Fundazioko (JMZ) Talde Eragileko kideak dira. JMZko proiektu berrian lanean ari dira 2010etik. Fundazioaren asmoez eta norabideez mintzatu gara beraiekin.



Bermeoko Atxurra hotelean 2 lagunentzako asteburu pasa bikaina. Beranduegiren Facebook-eko horman bideorik onena jarri eta *atsegin dut* gehien jasotzen duenak irabaziko du hilabete amaieran.



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2012ko otsailaren 26a, 2.312. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Gari Garaialde:** «Sekula ez nau kezkatu argazkia artea den ala ez». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Mugimendu antinuklearra Alemanian.** Iragan borrokalaria, etorkizun itxaropentsua. IRATI ELORRIETA / 5

Pertsonaia

- **Karlos Zurutuza:** «Enpatiarik gabe nekez transmititu ahalko duzu inoren sufrimendua». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Miren Aranguren:** «Gazte piloa lotu da borroka feministara». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Poligrafoen narkotrafikoa. JOSÉ LUIS PADRÓN / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Aitzina.** BEA SALABERRY / 20
- **Txandan** Denok ala inor ez. ANDONI MUJICA / 20
- **Itsu.** IMANOL AVAREZ / 21
- **Hiruko txikian** *The Bodyguard*. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Itzulera jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 22

Erdiko kaiera

- **Lisabö:** «Entseguetako sentsazioak diskoan errepikatzen jakitea garrantzitsua da». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 31
- **Ihesi Iruñea.** Zubirik zubi. AINGERU EPALTZA / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Olatzagutiako errauskailua.** Batzuentzat negozioa, gehientzat langabezia. URKO APAOLAZA / 41
- **Enpresak sare sozialetan.** Nola erabiliko ditut hizkuntzak sarean? SAIOA LABAKA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Nestlék Suitzako altermundialistak espiatu zituenekoa. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Elkar ikusezinak.** BIXENTE SERRANO IZKO / 50



“Sekula ez nau kezkatu argazkia artea den ala ez”

Gari Garaialde

Hatzari bakarrik ez, kaskoari ere eragiten dion fotokazetaria.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hemen filosofia garaikidea: argazkiak egiten ditut, beraz, banaiz.

Oporretan ikusi eta barregura sortzen ziguten japoniar haien antzeko bihurtu gara. Argazkia egiteak berak hartu du garrantzia, argazkian gorde nahi dugunak baino.

Argazkilaritza demokratizatu egin da. Edo urar-dotu?

Boterearen kudeaketa izan ezik, demokratizaten den guztia urardotzen da. Elite baten esku egoteari utzi eta edonork egin dezakeenean, argazki hutsalak aurkitzeko aukera igo egiten da, baina gauza interesgarriak aurkitzekoa ere bai.

Azkar aurkitu beharko, ez zaizkio-eta egun asko-asko geratzen argazkilaritzari.

Telefono guztiek argazki kamera bat edo gehiago izanda, nola esan daiteke ez zaizkiola egun asko geratzen? Beste zerbait izan daiteke argazkilari profesionalaren figura.

Argazki molde tradizionala hil da, behintzat; biba argazki digitala!

Euskarri aldaketak ez nau kezkatzen, historiak berdin kontatu daitezke eta. Aldiz, egia da euskarria aldatzearekin erabilera batzuk aldatu egin direla.

Paradigma aldaketa bizi dugu, eta kexu gara gainera.

Aldaketak beti eragiten dizkigu trabak, jokatzekeo molde berriak topatu behar baitira, baina aldaketa berez ez da txarra, norantz aldatzen garen da kontua.

Erregistroa, egia, memoria, artxiboa, identitatea, fragmentazioa... Non geratuko dira baloreak?

Erregistroa, memoria, artxiboa... berezko dauzka argazkiak. Lehen ere horren kontzientziarik gabeko askoren argazkiengatik dauzkagu igarotako garaiei irudiak. Orain gauza bera gertatuko da.

Eta argazkiak ez du gezurrik esaten; bai, ordea, argazkilariak.

Egiarik ere ez du esaten argazkiak, hori ere argazkilari edo argazkiaren erabilpenaren ondorioa izaten da.

Argiaren artea ez da izango hemendik aurrera; ea argitasunarena den.

Sekula ez nau kezkatu argazkia artea den ala ez.

Esan egia: lanpostua galtzeak kezkatzen ditu argazkilariak.

Denok kezkatzen gaitu lanpostua galtzeak, guk ere jaten baitugu, eta zergak pagatzen; baina neure soldata galtzeaz gain, fotokazetaritzaren funtzioaren desagertzeak ere ematen dizkit buruhausteak.

Argazkiak paperezko hedabideetan: beharrezkoak, gutxiago idatzeko besterik ez bada?

Eta irakurleari orrialde irakurterrazagoa eskaintzeko, kolorea sartzeko, kazetaria bertan izan zenaren sentazioa emateko... informatzeko izan ezik. ■



Mugimendu antinuklearra Alemanian

Iragan borrokalaria, etorkizun itxaropentsua

Fukushimako hondamendia gertatu eta gero, energia nuklearrarekiko menpekotasun handiena duen laugarren herrialdeak, Alemaniak, energia hori 2022rako guztiz alboratzea onartu du. Etorkizuneko errealitate berrira gerturatu gaituzte hainbat alemaniarren eta Alemaniara alde egindako japoniarren historiek.

IRATI ELORRIETA



BÜNDNIS 90/DIE GRÜNEN

Hondakin nuklearrak garraiatzen dituen Castor trenaren kontrako protestak Gorleben-en. Iazko garraioa orain arteko geldoena eta garestiena izan da, baita polizialki bortitzena ere.

JAPONIAN, bi bomba atomiko pairatu zituen herrialdean, amen esan zioten energia horren erabilera zibilari: lehentasunezko estrategia nazional bihurtu zuten teknologia merkea, hazkunde ekonomikorako oinarria ezarriz. 2011ko martxoan Fukushimako istripuarekin batera deuseztatu zen

ilusioa, lau erreaktore nuklear kontrolik gabe zeuden. Globoaren beste puntan, Angela Merkelek energia atomikoa alboratzeko urratsak eman zituen, nork eta hila-bete gutxi lehenago zentral nuklearren bizitza luzatzeko erabaki eztabaidatua hartu zuen kantzilerrak.



Shimomura familia (ezkerreko irudian) Tokiotik Berlinera aldatu zen, Fukushima hondamendiaren ostean. Inge Hauri 75 urteko ekologistak (eskuinean) zentral nuklearren aurkako manifestazio ugaritan hartu du parte.

Shimomura familia, Japoniatik ihesi

Tokiotik ihesi, Miho eta Yoshihiro Shimomura hilabetetako haurrarekin Berlinera etorri dira bizitzera. “Nekatuta eta nahastuta nengozen japoniarren iritzi eta informazioekin” azaldu du Miho Shimomurak. “Urrun joan nahi nuen, lasaitu, Fukushima eta Tokiora begiratu kanpoko ikuspuntu batetik”. Istripuaren ostean, erradiazio maila altua zela-eta, urarekin arazoak izaten hasi ziren Tokion. Gobernuak haur txikiei urik ez emateko gomendatu eta hiruzpalau ordura ur botilak agortu egin ziren dendetan. Mihok Internet bidez erosi zuen ur frantsesa. Gobernuak ez zuen ezer esan janariaz, baina Mihok Alemaniatic erosten zuen haur-jana. “Informazioa oso iluna zen, zuzena eta okerra ezberdindu ezinik geunden”. Sedentarioak direla erakutsi dute japoniarrek: gutxi izan dira, Shimomuratarrek bezala, atzerriko laguntza-programetan parte hartzeko izena eman dutenak. Bikote gaztea da, eta Berlinen berriz hasteko prest badaude, semea arriskutik ateratzeko da batez ere.

“Ama gisa, barrikadetara joateko prest zaude” berretsi du Inge Haurik. 75 urteko emakumea Lauffen am Neckar-en, Stuttgartetik 50 kilometrorra, bizi da senarrarekin. Hauritarrak, irakasle erretiratuak biak, ekologista ezagunak dira Hördelin poetaren sorleku. 1967an bertara bizitzera heldu zirenean, lehen semearen haurdun zegoen Inge eta, hamar kilometrorra, Neckarwestheim zentral nuklearreko lehen erreaktorea eraiki-

**Irudi ikaragarriak heldu ziren
Fukushimatik, ostirala zen.
Astelehenean, energia politikan
norabide aldaketa iragarri zuen
Merkelek: zazpi zentral berehala
ixtea agindu zuen**

tzen ari ziren. “Bonba atomikoen ondoren, guk ere sinetsi genuen energia horren erabilera baketsua gauza ona zela”, onartu du. “Oso susmagarria egin zitzaidan eraikitzen ari ziren tximinia luzea. Informazio uholdeak irentsi genituen iritzi propioa izan ahal izateko, eta teknologia nuklearraren arriskuez jabetu ginen. Bigarren erreaktorea eraiki nahi izan zenerako, arrisku horren kontzientzia oso hedatuta zegoen biztanleen artean”. Plan nuklearrak geldiarazteko lehen saiakerak bide

legaletik egin ziren. Herritarren lehen helegite antolatuak 1971n sortu ziren, Neckarwestheim, Breisach, Esenshamm eta Bonn-en aurreikusita zeuden zentral nuklearren inguruan. Fukushima Daiichiko zentrala orduantxe jarri zen martxan.

Europako beste herrialde batzuekin alderatuz, 1970eko hamarkadan Alemanian sortu zen energia atomikoaren aurkako mugimendua bereziki sendoa eta, denborak erakutsi duenez, jarraitortasun handikoa izan da. Baliteke Joachim Radkau historialariak arrazoa izatea, mugimendu sozial hau “Errepublika Federaleko diskurtso publikorik handiena eta aberatse-na” izan dela argudiatzerakoan. Mugimenduak, lorpen zehatzetatik haratago, erresistentzia kultura bat markatu du. Euskal Herriko mugimendu antinuklearra ere indartsua eta anitza izan zen; denetariko protesta bideak erabili ziren, gatazkaren akabera ETaren ekintza armatuek ekarri zuten arren.

70eko hamarkadan heldu ziren Taichiro Kajimura eta bere andrea Berlinera, Tokion

ikasketak bukatu ondoren. “Ez nuen geratzeko asmorik”, kontatu du umoretsu bizitza erdia Berlinen egin duen kazetariak. “Garai hartan, Mendebaldeko Berlinen, ez nintzen kanpotar sentitu. Hemen ezagutu nuen 68ko belaunaldia, Japonian ezagutzen nuena zen. Akaso lehenengo protesta-mugimendu globala izan zen hura”. Egungo bankuen kontrako Occupy mugimendua du gogoan. “Baina Japonian, Amerikako Estatu Batuen propaganda sistematikoaren eraginez, energia nuklearraren erabilera baketsua deitu zena kritikarik gabe onartu zen. Orain arte bizitako gezurra hondoratu egin da Fukushimaarekin”.

1975ean, Inge Hauri alderdi sozialistan sartu zen buru-belarri. “Neckarwestheim-en, 27.000 helegitetik ez zen bakarra onartu –dio suminduta–, manifestazioak egin ziren, herri-iniziatiba sortu zen... baina erresistentzia ez zen izan Wyhl-en bezain arrakastatsua”. Mugimenduaren eredu da Wyhl: baserritarren eta unibertsitaroen protesta indartsuak, solidarioak eta baketsuak izan ziren. 1975ean zentralaren eraikuntza orubea okupatu zuten 28.000 pertsona inguruk eta ia bederatzita hila-bete geroago joan ziren azken okupak. Hamar urte iraun zuen gatazka juridikoak eta zentralaren eraikuntza ez zen inoiz bukatu. Hala ere, borroka askoz ere bortitzagoak izan

ziren, Borksdorf-en esaterako. Porrota adierazi zuen askorentzat. Baina mugimenduak garaipenak izan ditu behin eta berriro: Wackersdorf-en birprozesatzeko fabrikaren eraikuntza eragotzi zen. Gatazka jadanik ez zen lokala. 100.000 pertsona elkartzen ziren hainbat hiritako manifestazioetan.

Kontuan hartzekoa da erabilera zibilaren aurka zegoen jende gehiena erabilera militarren kontra ere bazegoela, eta bake mugimenduak susperraldia izan zuela 1979-1983 urteen artean. “Garai hartan jakin zen amerikarrek Pershing izeneko misil atomikoak zabaltu zituztela Alemaniako base militarretan. Gure semeak horren kontrako manifestazioetara joaten ziren, eta ni haiekin”, dio Haurik. 80ko hamarkadan, blokeen arteko norgehiagokaren eta beldurraren estrategiaren aurka mugitu ziren masak. 1980an, hein batean mugimendu antinuklearretik sortu zen Berdeak alderdia ere.

Txernobyngo perretxikoei muzin

Eta 1986an, Txernoby. Kajimuratarrek ez dute ordutik Poloniako perretxikorik erosi. Japonian aitzitik urrun geratu zen laino erradiaktiboa. Miho Shimomurak urtebete baino ez zuen artean. “Esan daiteke Alemaniako erreakzioa histerikoa izan zela”, aitortu du

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU



1970eko hamarkadan heldu ziren Taichiro Kajimura (ezkerreko argazkian) eta bere andrea Berlinera, Tokiotik. 23 urteko Nina Hensel-ek (eskuinean) Gorlebeneko azken protestetan hartu zuen parte eta begiak ubelduta bueltatu zen.

Haurik. Letxugak eta esne hautsa suntsitu ziren, ez zitzairen umeei hondar-kaxetan jolas-ten uzten... Alboan, Frantzia, antzekorik ez. “Baina genuen informazioak kezkatzeko arrazoiak genuela esaten zigun. Eta sentsazioa zen, ez zela egia osoa kontatzen zigutena”. Informazioa are mugatuagoa zen Ekialdeko Alemanian. “Guk perretxikoak jaten jarraitu genuen kezkarik gabe –alderatu du Herbert Zühlke lehor–, mugimendu kritikorik onartzen ez zuen sisteman, energia nuklearraren aurkako ahotsak ere ez zuten publikotasunik”.

Ekialdeko Alemaniakoa izan zen 1966an sare elektrikoa elikatzen zuen lehen zentrala. Hogei zentral eraikitzeko ametsa zuten, baina bigarren bat baino ez zen egin, Lubmingoa, Greifswaldetik hurbil. Zühlke zentral horretako erreaktore-operadorea izan zen 1975etik aurrera, harresia jausi eta urtebetera Ekialdeko Alemaniako zentralak itxi zituzten arte: ez ziren behar eta ez zituzten Mendebaldeko ziurtasun estandarrek betetzen.

1990eko hamarkadan bateratzea izan zen gai nagusia eta asko jaitsi zen nuklearen aurkako mugimenduaren jardura. Elkargunea Gorleben izan da garai makaletan: leku hori behin betiko biltegi posible modura ezarri zenetik –35 urtez atsedetik eman gabe–, hondakin erradiaktiboak auzia eztabaidaren gako bihurtu da. Halako biltegi baten xedea hondakin erradiaktiboak “ziurtasunez” milioi bat urterako biosferatik isolatzea da. Gorleben horretarako egokia ote den aztertu bitar-

“Hurrengo hamar urteetan Alemaniak egiaz industria atomikoarekin bukatzen badu, iraultza energetikoa izango da, mundu mailan puntakoa”, dio Kajimurak itxaropenez

tean, behin-behineko biltegi gisa erabiltzen da. Hondakinak Castor izeneko bagoietan trenbidez garraiatzen dira haraino. Azken garraioa, 2011ko azarokoa, orain arteko geldoena eta garestiena izan da, baita polizialki bortitzena ere: Frantziako Le Havre-tik abiatuta, 125 ordu baino gehiago behar izan zuen trenak. Atzerapena arrakastatsutzat jo zuten manifestariak. “Emitza geologikoen arabera, Gorleben ez da leku aproposa”, dio Kajimurak. 35 urte hauetan Gorlebeneko protesta kontaezinetan izan da bera eta familiarekin oporretan ere joan izan da bertara.

Oporretan bezala sentitu zen Nina Hensel, 23 urtekoa eta Kajimurarekin belaunaldia partekatzen dutenen alaba, azken blokeoetan parte hartzera Gorleben inguruko kanpamentuetako batera iritsi zenean. Begiak ubelduta bueltatu bazen ere, Hensel ez da kikiltzen den horietakoa: “Trenbideko harriak ateratzeko ekintzekin bat egitea erabaki genuen, nik ezin dut hogeitaz ipurdia trenbidean jarri”. Akziozko filmetatik soilik ezagutzen zuen zerbait bizitzea tokatu zitzaion. Ahotsean dardararik gabe gogoratzen ditu xehetasunak: “Nondik datorren ere ez dakizun odola. Mutil-lagunaren ahotsa poliziari gelditzeko eskatuz. Eta beldurrez, hil arte jotzen jarraituko ote gintuzten. Hiruzpalau minutu iraun zuen. Eskueta bilurrak ipinita, burua estalita, kriminal arris-kuetsuen pare eraman gintuzten furgonetan kartzelara. Paradoxa da niri indarkeria leporatzea, indarkeria gure helburuen kontra doala

sinesten baitut, baina uste dut zilegi dela kalte materialak eraginez protesta egitea”.

“Hondakinen arazoa –kritiko jarri da Herbert Zühlke– gobernu denek atzeratu nahi izan duten auzia da. Duela 50 urte geunden toki berean gaude”. Balizko biltegi berri bat bilatuko dela agindu du Gobernuak, Gorleбенeko azterketa-lanak bertan behera utzi gabe, ordea. Zühlkek lau errektoretako erregai nuklearra Castor-etan sartu eta Lubmin zentral ohiko behin-behineko biltegiara eramateak eman dien lana ezagutzen du. Hamar urtez aritu da zeregin horietan eta erretiroa hartu arte zentralaren eraispen lanekin jarraituko du.

Mugimenduaren susperraldia

Lozorroan zegoela zirudien mugimenduak indar handia hartu zuen berriro 2010ean. “Manifestazio jendetsuen kultura indarberritu zen Merkelek zentralen bizitza luzatzeko erabakia azaldu zuenean”, azaldu du Haurik. Aurretik, 2000. urtean, energia mota hori pixkanaka itzaltzen joatea hitzartua zuten koalizio gorri-berdeak eta industria atomikoak. “Baina badator Merkel eta ezetz dio, ez dugula egingo. Eta gaur ere hortxe egongo ginatke Fukushima hondamendia gertatu izan ez balitz”. Inge Hauri bera, Merkelek epeak atzeratu zituenean itzuli zen protestetara, eta 70-80etako lagunak topatu zituen. “Gero Stuttgarteko geltokiaren aurka kontzentrazioetara joaten hasi nintzen, bertan bizi diren semea eta haren emaztearen engaiamenduak bultzatuta”.

Errepublikak osoa jarri zen Stuttgarteko tren geltoki berriaren kontra sortu zen herri-mugimendu indartsuari adi. Inork espero ez bezala gurutzatu zen dena Stuttgarten. Hauteskundeak zeuden martxoan eta geltokiari buruzko jarrerak definitzen zuten kanpaina. Berdeek irabaziko zutela pentsa zitekeen. Irudi ikaragarriak heldu ziren Fukushimatik, ostirala zen. Astelehenean, energia politikan norabide aldaketa iragarri zuen Merkelek: zazpi zentral berehala ixtea agindu zuen, eta hiru hileko epean zentral denak berrikustea. Sinesgarritasun gutxiko maniobra Baden-Württemberg-en bere alderdiaren aukerak hobetzeko? Gaur, Berdeek *Land* batean duten lehen presidentea da Winfried Kretschmann, non eta 58 urtean zehar, kristau-demokrazia indarrean egon den *Land* kontserbadorean.



Kajimurak aurrez aurre adierazi zion Kretschmani: “Japonian Alemaniako bigarren politikari ezagunena zara”. Izan ere, japoniarrek arretaz jarraitzen dituzte Alemaniaren urratsak. “Ni zaharra naiz Japoniara itzultzeko. Asko dago egiteko, baina nik egin dezakedana Alemaniako informazioa helaraztea da. Horixe da nire betebeharra orain. Japoniako *lobby* atomikoak gorroto nau”, aitortu du Kajimurak. Bere kezkarik handiena da beste istripu bat gerta litekeela. Japonian berrikusi dituzten zentraletako bakar batek ere ez du jarraitzeko baimenik jaso eta otsailan 54 errektoretik soilik bik funtzionatzea espero da. “Hurrengo hamar

urteetan Alemaniak egiaz industria atomikoarekin bukatzen badu, iraultza energetikoa izango da, mundu mailan puntakoa”, dio Kajimurak itxaropenez. Zortzi zentral itxi dituzte Alemanian eta 2022rako gainontzekoak ixtea erabaki da.

Etorkizun berdea?

Hauri mesfidati agertu da: “Sinestarazi nahi digute norabide aldaketa ez dela posiblea. Hodiak ez direla prest egongo haizearen energia garraiatzeko, Magrebeko herrialdeetatik –politikoki sutan– erosi nahi zen eguzki-energia ez dela ziurra... Kontrako propaganda itzela egiten ari dira”. Iraultza energetikoa izango bada, haize-errotak eta hodi berriak baino zerbait gehiago beharko du Alemaniak. Energia sortu eta erabiltzen duten azpiegituren erabateko aldaketa berdea eskatuko du, autoak, eraikuntzak eta fabrikak barne. Inork ez du ahazten alde batera Polonia dutela, energia nuklearrarekin hastekotan; beste aldera Frantzia, zentralak josita. Zalantzen gainetik, haatik, idealismoa gailentzen da Hauriren hitzetan: “Erabat sinetsita nago, Alemanian ondo badao, gainontzekoak atzetik eramango dituela”.

Shimomuratarrek bizitza berriari ekin diote Berlinen: haurtzaindegian lekua lortu, diru-sarrerak eta zeregina dutela frogatzen dituzten dokumentuak bildu, aleman ikastaroa hasi... Mihori ez zaio aurpegian etsipen izpirik antzematen: “Ez nuen sekula pentsatu Toraren lehen urtebetetzea atzerrian ospatuko genuenik. Agian uste nuen baino errazagoa izango da”. Beren bizimodu berriaz ari da, baina gure planetak bizi ditzakeen garai berrien isla ere izan daiteke. ■



Karlos Zurutuza

«Enpatiarik gabe nekez transmititu ahalko duzu inoren sufrimendua»

Afganistan, 2010. Helmand herrian, ospitale batean sartu da Karlos Zurutuza. Haurren negarra: besamotz, eskumotz, aurpegiak erreak... Piztu du pilotu automatikoa. Honen hitzak bildu ditu, haren argazkiak. Osagaiak ditu, erreportajea idatzi du. Etxera itzuli da, igaro da denbora eta, halakoan, krak egin du haren barruak negarrez. Afganistango garrasi mina Donostiaraino dakar gerrako kazetariak.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Noiz hemen, noiz han. Zein duzu agenda?

Azken ordu arte ezin jakin. Gutxi gorabehera jarduten dut, zenbait aurreikuspenen arabera. A plana egiten dut batetik, eta B plana bestetik. Bisatuak direla, hedabideek erreportajeak nahi dituzten ez dituzten... Bi plan izan behar! Nahi gabe hasi nintzen lan honetan, erreportajeak idazten. Ez nuen hori buruan. Bidaia bat egin nuen, eta testu bat idatzi, lehenengo erreportajea. Gerora egin dut bidea, gerra lekuetako kazetaritzan espezializatu arte. Bidaia amorratua izan naiz beti. Irakasle nintzen garaian, bidaiari nintzen oporrak nituenetan. Bidaiak ogibidea ekarri du, eta azkenean, baita adikzioa ere.

Adikzioa?

Bai. Etengabe ikasten ibili nahia. Kanpoan zabiltzala, dena duzu berria. Ez zara nekatzen. Egunak ematen dituzu behar bezala lorik egin gabe, edo gaizki janez. Baina dena berri izate horrek zutik mantentzen zaitu. Erreportari izateak horixe dakar, beti ikasten ibiltzea, alde guztietan ere. Etengabe ikasten jarduteak eragiten dit adikzioa.

Arestian aipatu duzu: lehenengo erreportaje hura...

2005ean argitaratu nuen, ARGIA honetan bertan, Armeniako kurduen inguruan. Oso gauza bitxia. Nire urtebetetzearekin batera

argitaratu zen, ekainaren 5ean. Ez zen hutsetik sortu erreportaje hura. 1998an izan nuen lehenengo lotura kurduekin, Turkian. Berebiziko interesa izan dut beti kultur gutxituekiko, edota erlijio eta sekta gutxituekiko. Harri-garria gertatu zitzaidan Armenian ere

Nortasun agiria

Karlos Zurutuza (Tenerife, Donostia, 1971). "Bizia eta osasuna jokatzeko ditut. Bitartekoak urri ditu baina ez da, haatik, urritasun hori haiztzen ibili zale. Estereotipoak ez ditu aski, ezta bertsio ofizialak ere, nahiz eta haiek kronika minak idazteko materiala eskaini. Auzorik txiroenetan besterik ez da sartzen, hantxe kokatzen da. Europarrek albiste-iturritzat ez dauzkaten herrialdeetan barna abiatzen da, indigenak baino ibiltzen ez dituzten bideetan zehar. Pertsonarik umilenak ditu helburu, eta ikusten duena kontatzen du. Giza begirada darabil, laguna ulertzeko eta hari laguntzeko gogo...". Ryszard Kapuscinskiren gainean inoiz idatziak dira, baina, gurean, Karlos Zurutuzari buruz esateko modukoak dira. Ingeles Filologia egina, irakasle izana, bidaiari handia... Kazetari lanetan ibili da gerra egoeran diren hainbat herrialdetan. Aurten ARGIA Saria jaso du, idatziak dituen erreportaje bikainen ordainetan.





kurduak izatea. Gainera, jatorriko erlijioari eusten zioten kurdu haiek. Gutxi landutako gaia iruditu zitzaidan, eta Armeniara joan nintzen. Ez nuen deus idazteko asmorik, hura ikusteko gogoia besterik.

Armeniara joan zinen, kurdutara, armeniarrek berak bazter utzirik?

Izan zitekeen armeniarren gainean idaztea ere, baina zerbaitek gutxiengo eta gutxituetara jartzera bultzatu nau beti. Bakartuetara, isolaturik bizi direnengana. Errusian banengo, armeniarren bila nenbilke. Armenian egonik, kurdu artean izan nintzen. Batetik, neure jakin-mina dabil hor. Bestetik, gai horietan oso informazio urria dugula, nekez izaten dugu haien berri.

Erreportajeek balio dute informazio urritasun hori berdintzeko?

Balio? Hutsunea betetzen dute, hutsune bat, hutsune erraldoi hori betetzerik pentsatu gabe. Megalomania litzateke hori uste izatea. Norberak ahal duena egiten du, eta kasu honetan, euskaraz argitaratutakoa hor zehar jasota dago, dela ARGIAN bertan, dela Berrian, edo dena delakoan. Ni, azken finean, erreportaria naiz. Euskal Herrian izan, nahiz Afganistanen, gure moduko jendearekin egoten naiz. Munduaren beste puntan ditudan haiengana jotzen dut, bai, baina funtsean, gizaki xumeekin ari naiz harremanetan. Distantzia geografikoak ez du lana markatzen. Jantzi bai, markatu ez: ez du ogibidea nire

Irak

"Iraken izan nintzen azkenekoan, ia herrialde osoa zeharkatu nuen garraio publikoan. Batere problemarik ez nuen izan. Jendeak biziki estimatu zidan, normaltasun seinale zuten: 'Kanpotarrak itzultzen ari dira, gurekin batera datoz, armarik gabe, zaindaririk gabe!'. Harrera ezin hobea egin zidaten. Guk haiei gure kaleetan egiten diegun harrera guztiz kontrakoa da. Etxeko ateak ixten dizkiegu, gaizki begiratzen diegu..."

helburutik desbiderarazten. Pertsonengana jotzen dut, jakin-mina dut, ni bezalakoak nola bizi duen gerra egoera, muturreko egoera, jakin nahi dut. Eta kontatu.

Kamuflatu behar izaten zarela irakurri dut han edo hemen.

Ez da kamuflatzea... Atentzioa ez deitzen saiatzen naiz, baina, gai horren inguruan nik "biktimen demonizazioa" deitzen dudana horrekin egiten dugu topo. Ohiko hedabideek zer transmititzen digute? Iraken dena txarra dela, denak dira gaiztoak. Eta aldiz, hara joan eta ikaragarri adeitsua da jendea. Jakina, inoiz ez dut erakutsiko kanpotarra naizela, baina gainerakoan, normal ibili ohi naiz, hemen bezala jantzita, nahi baduzu, baina han bertakoa izaten saiatuta.

Zertan da kazetariaren ekipoa? Grabagailua, kamera eta abarra.

Idatzi egiten dut, oroz gain. Argazkiak ere egiten ditut, ez oso onak. Reflex kamera bat eramaten dut baina, askotan, nahikoa dut kamera txiki bat, sakelan sartuta. Grabagailua, digitala, txikia, eta koaderno, hura ere txikia [aurreko orrialdean, bidaietako koaderno artean egin diogu argazkia]. Ekipo handia ez, beraz. Hango ordena ez desordenatzen saiatzen naiz, hango desordena ez ordenatzen.

Agintariek mugak jartzen dizkizuetela irakurri dut. Ez dakit, bada. Askotan, hemen baino errazago egiten dugu lan. Askoz errazago iristen

Itzulera

“Itsasoa beti dut faltan. Bidaiatik bueltan, itsasoa ikustera joaten naiz. Donostian, Antiguako tunelean, hantxe beti errumaniar bat musika jotzen. Askotan galdetzen diot neure buruari: ‘Zertan joan urruti? Etxean bertan ere bada hamaika injustizia!’. Gainditu gabeko asignatura dut hori”.

gara Iraken, edo Afganistanen, hango ministro batengana, hemengo batengana baino. Oso gauza arina da askotan. Sarri nahikoa duzu telefono zenbaki bat lortu, deia egin, eta handik bi ordura baten batekin ari zara hizketan. Egia da zenbait lekutan komisarioak jartzen dizkigutela, “hona bai, hara ez!” agintzen digutenak... Sirian izan nintzen azkeneko aldian, 2008an, turista bisatua nuela joan nintzen, eta Pakistanera ere berdin. Herrialde horietara kazetari bisatua duzula joaten baldin bazara, guztiz mugatuta egongo zara, denbora guztian zaintzapean, zurekin elkartzen den jendea bera ere arriskuan jarriko duzu. Libian, esaterako, azkeneko gerra honetan, Tripolira joan nahi nuen zuzen, baina luxuzko hotel batean egon behar nuela kontuan hartuz, zaintzapean, lan independentea egiteko batere aukerarik gabe —ez kaleko jendearekin hitz egin, beti izango baintuen alboan komisarioak—, matxinoen aldean ibiltzea erabaki nuen, handik egitea erreportajeak. Haiekin ibili eta Tripolira iritsi nintzenean, ordu arte ikusi ez nuena ikusten eta kontatzen saiatu nintzen, erreportajeak idazten... Komisario politikoko saihesten saiatzen naiz, turista bisaren jabe eginez, edo matxinoen alderditik idatziz.

Nola jarri harremanetan matxinoekin? Zein hizkuntzatan komunikatu?

Libiako matxinoak guztiz eratuta zeuden. Erraza zen haiekin harremanetan sartzeari. Tunisiara joan, muga zeharkatu eta, inolako bisaturik gabe, hantxe izango zenuen norbait atzerriko kazetariez arduratuko zena, ingelesez zekiena. Nora joan nahi nuen, zer egin nahi nuen galdetu zidaten, eta —bitxia bada ere, ez urik ez jakirik dutelako egunero—, beti zuten Internet eskura. Baten batek jakinarazi zien, edo beraiek jabetu ziren, kazetariak egiteko handia izango zutela gerra horretan. Eta halaxe izan da. Nire ustez, horixe izan da Gaddafiren akatsik handienetakoa: kazetariak bozal hori jartzea.

Kalean gertatzen zaizun oinezkoak libre hitz egiten dizu, aho-bilorik gabe?

Azkeneko honetan, Libian, iritsi nintzenean ez zegoen emakumerik ez umerik, haiek

denak errefuxiatu guneetan baitzeuden, Tunisian. Libian gelditu zirenak borroka besterik ez zuten, eta kontatzeko irrikatan zeuden. Hamarkadak zeramatzen Gaddafiren erregimenaren azpian, eta betiko historia gogorak kontatzen zituzten: torturak, espetxeratzak, sarraskiak... Baina, jakina, alde batean nengoen, ez nekien beste aldeko berri. Kohe-teak eta misilak ikusten dituzu, nondik abiatzen diren. Ez dakizu zein duten jomuga, edo zer kalte egiten duten muga jotzen dutenean.

Alde batetik bestera misilak, handik hona eta hemendik hara, jomugak jomuga, biktima bat bera da beti: gizarte zibila.

Gerra bera zer den definitu beharko genuke. Zer dugun gerra, bi bando horiek, alde batekoak eta bestekoak, baina, beti, hiltzaileak eta biktimak, eta biktimetan %90, zibilak. Afganistango gerra, gerra modernoaren akabua omen. Bada, hamar biktimetan bederatzi, zibilak dituzu.

Biktimak, zibilak. Eta zer zara zu, zibila ez besterik. Arriskuan ikusi duzu inoiz zeure bizia?

Argazkilariek ez bezala, ez daukat zertan “fronte-frontean” egon beharrik. Nire historiak ospitalean daude, etxe barruetan, ireki berri den eskola batean... Jakina noiz edo noiz ezusteren bat egon dela baina informazioak batetik, eta beldurrak bestetik, onik jarraitzen laguntzen didate beti. Beldurra nirekin dator beti, ezinbestekoa baitzait. Beldurrik ez duela dioena gezurtia edo axolagabe hutsa da. Arrisku maila zorrotz eta estu baloratu behar da inolako pausorik eman aurretik. Espero ez bezala, Libian, esaterako, oso erraza zen lan egitea. Bagenekien non zegoen frontea. Hara joan nahi izanez gero, matxinoekin joan besterik ez zenuen. Herrian geratu nahi izanez gero, toki segurua zen, inork ez zintuen bahituko. Bertako jendea zuri laguntzeko prest zegoen. Nahiz eta gerra irekia izan, hobe da arriskua non dagoen jakin.

Non edo non “handik” idazten diguzue, non edo non “hango” berri, beste mundu bateko gerra...

Bi mundu dira, bai, pobreak, batean, aberatsak, bestean. Funtsean, horixe. Zer kontatzen dugun, zer kontatu behar dugun? Pobreei gertatzen zaiena, haiek sufritzen ari direna. Gure erruz, askotan. Pobreak eta aberatsak, justizia eta injustiziak, gure mundu honetan ere egunerokoak dira.

Zergatik Libia, Siria, Afganistan, Tunisia... eta zergatik ez Kolonbia, Ekuador, Nikaragua, El Salvador...?

AZKEN HITZA

Ezezagutza

“Ez dakit mundu hau konponduko due-nik ba ote den. Aurrena, nork bere burua txukundu beharko luke. Askotan pentsatzen dut: Mendebaldean edo-nork izango balu aukera nik Ekialdean bizi izan dudana bizitzeko, egun bakar batean besterik ez bada ere, mundua ezberdina izango litzateke. Ez daukat zalantzarik. Baina ez dugu hura ezagutzen, eta ez ezagutzeak beldurra dakar, eta beldurrez bizi garen bitartean nekez ulertuko dugu elkar”.



Karlos Zurutuza, Libiako Nalut-en.

Erantzuten zaila zait galdera hori. Ekialdearekiko lotura izan dut beti. Konturatu gabe ere, Ekialdera bidaiatu izan dut beti. Ez naiz inoiz Atlantikoaren bestaldean izan. Joan nahi nuke, baina ez dut lehentasuna. Nire lanaren helburua ez da, besterik gabe, gerra egoera bat ikuskatzea, kultura bat ezagutzea baizik. Herri horiekiko berebiziko interes pertsonala dut, kultur interesa. Mesopotamiako erlijio gutxituekiko interesa dut, Afganistan edota Kaukasoko hainbat ibarretako taldeekiko jakin-mina. Horixe da gustatzen zaidana. Nire lana, berriz, leku horietara joateko aitzakia dut, askotan.

Zeure barrua erretratatzan ari zara interes horietan. Non piztu zaizu herri eta kultura gutxitu horiekiko garra?

Askotan pentsatu dut horretaz, baina orain arte ez naiz erantzuna hitzez adierazteko gauza izan. Nork bere filiak eta fobiak ditu, eta nik neureak. Badakit Kolonia, Honduras eta El Salvadorren injustizia latzak gertatzen direla, hemendik ere askoz gehiago begiratu dugulako hara, Ekialdera baino. Nahiko hurrekoa dugu Erdialdeko Amerika. Aldiz, Afganistan, edota, are, Balutxistan, non diren ere ez dakigu. Txantxetan ari nintzela uste izaten dute batzuek. Esaten dut Balutxistan, esaten dut Osetia, esaten dut Kurdistan... Asmatzen ari naizela uste dute. Askotan gertatu izan zait hori Balutxistanen kasuan, adibidez.

Injustizia aipatu duzu arestian. Zer zaitugu, kausa galduen defendatzailea, deabruaren abokatua, GKE ibiltari bat, menturaz?

... Sekretu bat kontatuko dizut.

Terapia

“Hasieran, film batean bezala ikusten duzu zure burua. Laster konturatzen zara hori ez dela harrokeria besterik. Lanean hasten zarenean ez duzu historia pertsonaletan besterik pentsatzen. Horiek ditut nik gustukoak. Eta historia idatzi arte ez dut bakerik barruan. Ahalik eta azkarren idatzi behar izaten ditut, eta dena delako hedabidera bidali. Horrek ikaragarri laguntzen dit. Terapia antzekoa dut”.

Faborez.

Argazki bilduma oso berezi bat dut. Gerra tokietan naizela, kanposantura joateko ohitura dut. Eta beti dut ni jaio nintzen urteko norbaiten hilobiaren argazkia. Askotan, beste alfabeto batean idatzitako izena da, baina latinezkoak dira zenbakiak. 1971 beti. Sekulako zirrara eragiten dit: hura ni izan nintekeela pentsatzen dut beti, urte berean jaioak. Nahiz eta urte berekoa izatea anekdota hutsa den kasu honetan. Baina, hala ere, ni izan nintkeen hura. Zori handia izan dut, Europar jaioa, mundu aberatsean, aberatsen munduan. Horrelako hilobi bat ikusi nuen lehenengoan, Karabaj Garaian izan zen, oroitzen naiz, egonezin handia eragin zidan. Hein batean, sentipen horren atzean erru sentimendua dagoela esango nuke. Hemen jaio nintzen, ezin dut mundua aldatu, baina bai hura kontatu, hau da, nire urte berean jaio zen hari gertatu zaiona. Sentimendu hutsa da. Sentitu ezean alferrik ari zara lan honetan. Enpatiarik ez baduzu, nekez transmititu ahal duzu inoren sufrimendua.

2005ekoa duzu lehen erreportaje hura. Orduko Karlos Zurutuza eta oraingoa, bat bera dira?

Ez. 2007an hasi nintzen erabat kazetari. Joan deneko bost urtean bizi izan dudana samina betiko izango dut. Asko ikasi dut, baina samin hori inork ez dit kenduko. Kontzientzia berezia ematen dizu horrek. Tripolin nintzela, han ari ziren hedabideak, Gaddafi gora eta Gaddafi behera. Baina ez zuten esaten jendeak urik ba ote zuen, umeak eskolara ote zihoazen, jendeak zer egiten zuen, zer pentsatzen zuen... Eta justu, hori jakin nahi izaten dut nik. ■



• Miren Aranguren •

«Gazte piloa lotu da borroka feministara»

Miren Aranguren (1981, Iruñea) Euskal Herriko Bilgune Feministako kidea da sorreratik. Mugimenduak hamar urte beteko ditu aurrean eta martxoaren 2tik 4ra topaketak egingo dituzte Leitzan. Arangurenen ustez, emakumeen egoerak okerrera egin du. Aldiz, mugimendu feminista indartsu dabil.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco

Epe motza bada ere, hamar urtean aurrerabiderik izan al da Euskal Herrian?

Emakumeen egoera gordin aztertzen badugu, gure bizitzak ez du hobera egin, okerrera esango nuke. Ni behintzat ez naiz oso optimista. Begira azken urteetako tendentzia kapitalista eta patriarkala, sistemaren krisi orokorrek nola garen emakumeok berriro kolektibo kaltetuena. Sistemak gure betiko rola betetzera bideratu nahi gaitu. Gizon eta emakumeen arteko harremanetan, harreman afektibo-sexualetan, eta abar, ez dut uste aurrerapauso handirik eman denik, zeren azkenean eredu berdin-berdin mantentzen da eta berrindartzen da. Ordea, optimista naiz borroka feministarekiko.

Hamar urtean aldea nabaritu al duzue?

Duela hamar urte Leitzako topaketetan balorazioa ondokoa zen: emakume gazteek ez genion atxikimendu handirik borroka feministari, ez genuen lehenesten 1980ko hamarkadan bezala. Urte batzuetan oso apal egon zen, baina gero emakume gazte piloa lotu da borroka feministara. Arrazoiak hainbat izan-

“Sexuen arabera antolatzen garen bitartean sistema patriarkalak erreproduzitzen segitzeko aukera izango du”.





go dira, baina nik hiru azpimarratuko nituzke: 2000. urtean Emakumeen Mundu Martxarekin sortzen den ilusioa, postfeminismoa –gero izen berriak hartu ditu: transfeminismoa, queer teoria– eta Bilgune Feministaren sorrera.

Mugimendu feministan antolaketa berriak sortu dira, bereziki batera aritzeko espazioak landu dira. Azken urteetan dinamika bateratua izateko gaitasun handiagoa izan dugu. Dena dela, mugimendu feministak oztopo handi bat dauka.

Zein?

Berdintasunean bizi garen premisa faltsuarekin bizi gara. Eta betiko beste oztopoa: mugimendu feminista zalantzan jarri da sortu zenetik, ezkerreko mugimenduetan ere asko kostatzen da onartzea. Hori guztia hor egonda ere, momentu oso polita da.

Bi oztopoek tinko al diraute oraindik?

Bai. Ematen du feminismoak berdintasunik ez duela nahi, matxismoaren kontrakoa dela, “feministek gizonen gainetik jarri nahi duzue”, ikastetxeetan beti dago haurren bat hori botako dizuna. Bestalde, erakunde publikoek berdintasunaren alde egiten dute, baina ez jendarte eraldaketaren alde. Guk nahi duguna da hemen dauden egitura patriarkal guztiak iraultzea eta horretarako sistema guztia irauli behar da. Ulertzen dut zergatik dagoen feminismoa ezbaia, errotiko aldaketa planteatzen duelako.

Emakume abertzaleen V. topaketa feministak martxoaren 2, 3 eta 4an izango dira. Arangurenek eskutan dauka afixa.

“Esango nuke Euskal Herrian desagerrarazita bezala gaudela feministak bake eta normalizazio politikorako prozesuarekiko”

Beldurra eta interesak?

Ez dugu ezagutzen horrelako eszenariorik. Ezin dugu imajinatu kategoría sexualik gabeko jendarte eta gainera mailaketarik gabea. Horrek beldurra ematen du, beldurra ematen dio eskuinari eta beldurra ematen dio ezkerri. Niri ere bai batzuetan!

Azken hamar urteotan mugimendu feministak zein ekarpen egin ditu?

Ekarpen teoriko oso interesgarriak egon dira, bi azpimarratuko nituzke. Queer teoritik edo transfeminismotik egin den ekarpena bata. Teoria horren arabera sexuen binomioarekin puskatzeko apustua egin behar da, bestela, sexuen arabera antolatzen garen bitartean sistema patriarkalak erreproduzitzen segitzeko aukera izango du. Beste ekarpena zaintza lanei buruzkoa da. Ekonomia feministaren ikuspegitik zaintza lanak eredu ekonomikoaren erdigunean kokatu dira. Urte askoan, mugimendu feminista enpleguaren eremua aldarrikatzen aritu da, espazio publikoa konkistatu nahian. Baina betetzeari egokitu zaigun beste espazioa, zaintzarena, balio gabetu egin du jendarteak, eta guk ere balio gabetzeko arriskua izan dugu. Zaintza, jendarte eraikitze erdigunean kokatu behar dugu, ildo horrek garrantzi handia hartuko du.

Haur-gazteak gurasoen patroiak errepikatzen ari dira.

Oso kezkatuta gaude. Inoiz baino mutilago eta inoiz baino neskago dira gaur egungo gazteak, ereduak gero eta markatuagoak dituzte eta horrek ondorioak ditu, adibidez beraien artean harremantzera-koan. Nire gurasoen garaian edo ni baino pixka bat zaharragoen garaian askatasun sexualaren ametsa oso-oso presente zegoen. Gaur egun ez. Betikoa da, baina oraindik mantentzen da marikoiaren eta putaren estigma, eta Don Joanen kontu hori.

Edozein ikasgeletan ikustekoa da nola harremantzen diren gaur egungo gazteak.

Apenas aurreratu dugun, beraz.

Inoiz ez dugu egiturak aldatzeko apusturik egin, egiturak aldatzen ez diren bitartean ez ditugu ereduak, sinboloak, aldatuko. Esan ahal diegu txiki-txikitatik “berdinak zarete”, baina gero ez baditugu berdin tratatzen? Etxean ezberdintasun piloa ikusten baldin badute, telebista ikusten badute –neskek hau egiten dute eta mutilek hori– umeez ez dute sinesten esandakoa, imitazioz ikasten dute. Guk erakutsitakoa ikasten ari dira eta guk sis-

tema patriarkalak dauzkan espresio horiek guztiak erakutsi dizkiegu.

Eusko Jaurlaritza prestatzen ari den lege aurreproiektuan berdintasun politikak eta indarkeriaren aurkako politikak bereizten ari direla salatu duzue.

Berdintasuna estrategia orokorretik banatu nahi dute. Adibidez, aurreproiektua aurrera ateratzen bada Emakundek orain arte indarkeriaren aurkako politiketan izan duen funtzioa ez du beteko. Ardura hori Herrizaingo Sailaren esku geldituko litzateke, Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzaren eskuduntza litzateke. Arriskutsua da bide hori, zeren indarkeria sexistari aurre egingo zaio, baldin eta zapalkuntza patriarkalarekin bukatzen badugu. Bi bideak bereizten badira ez dira inoiz batuko. Eta gaia asko teknifikatu eta polizializatu da.

Argudioa da indarkeria jasan duen emakumea babestu behar dela...

Emakumeak estigmatizatzeo neurri asko ari dira hartzen, bizkartzainen kontuarekin adibidez. Ez dut esan nahi emakume batzuentzat lagungarria izango ez denik, baina ezin dugu premisa orokor bezala planteatu. Oso biktimizatzaileak dira neurriak eta legeak. Bitartekoak behar dira indarkeria jasan duen emakumea subjektu politiko bilaka dadin. Instituzioek emakumea hartu eta erabat isolatzen dute; saretu orde, beste emakumeekin eta mugimendu feministekin harremanetan jarri orde, bitarteko sozio-ekonomikoak eman orde, autodefentsa feminista landu orde.

Martxoko topaketetan panorama politiko berriari helduko diozue. Bilgune Feministarentzat aurrera begirako gai potoloetako bat izango al da?

"Mugimendu feminista enpleguaren eremua aldarrikatzen ari du. Zaintzarena baliogabetu egin du jendarteak, eta feministok ere baliogabetzeko arriskua izan dugu"

Bilgunerentzat beti izan da ildo garrantzitsuenetakoa. Euskal Herri feminista eraiki nahi dugunontzat koituntura politikoak asko esan nahi du. Bake eta normalizazio politikorako prozesua abiatzeko baldintza berriak sortu direla ikusita, ezinbestez landu behar dugu gai hori, zeren koituntura politiko horretan emakumeok ez badugu ezer esaten, erabakiak jendartearen erdia baino gehiago kontuan hartu gabe hartuko dira berriz ere.

"Berriz ere", diozu. Lehen ere hutsuneak al zeuden?

Lehen hutsuneak egon baino, gu ez bagina hor egon hutsuneak izango ziren. 2005ean hainbat eragilek Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa sinatu genuen eta mugimendu

feminista hor egon izan ez balitz, ziurrenik ez zen jasoko aldagai potolo bat, alegia, emakumeen kontrako zapalkuntza kontuan hartu behar dela. Edozein prozesu parte-hartzaile planteatzerakoan emakumei begirako neurri zehatzak ere kontuan hartu behar dira, edo behintzat genero perspektiba.

Ez dugu guk bakarrik esaten, gatazka armatua konpontzeko nazioarteko prozesu askotan aldarrikatu dute mugimendu feministek emakumearen presentziaren beharra. Ezinbestekoa da aldarrikatzea, bestela ahaztu egiten da. Erabakiak gizonen artean edo gizonen osatutako espazioan hartzen dira, erabaki politikoak ez dagozkigulako emakumei eta are gutxiago feministoi. Esango nuke Euskal Herrian desagerrarazita bezala gaudela feministak prozesuarekiko. Benetan eszenario demokratikoa kontuan hartu nahi badugu, justizian oinarritu behar da. Ez dago justiziarik zapalketak dirauen bitartean. ■



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA

BIZIA

TTAKUN (H)ERRENKA

Poligrafoen narkotrafikoa

Poligrafoaren bitartez, horrelaxe okurritu zait nire bi ttakunkideen azken artikulak, hau da, Beñaten *Salvame pixka bat* eta Uxueren *Boligrafo bat adibide*, biak nire ttakun berrian lotzea. Ez dit buru-kolpeak Pentsamendua-ren arloko ARGIA Saria ekarriko, baina, tira, bigarren erreskate plana desblokeatu aurretik, nik ere murrizketa neurriak aplikatuko ditudala erakutsi behar dut, alegia nire irudimena apalduko duen austeritate plan baten alde egingo dudala hemendik aurrera. Poligrafoa edo gezur-detektagailua pertsonaren zenbait parametro fisiologikoren aldaketak erregistratzen dituen aparatua da. Benetako errealitatea hil egin da, poligrafoaren garaia jaio da. Poligrafoaren menpe dagoenak botatzen duen izerdiaren, arnasteko egiten dituen mugimenduen, bihotzeko taupaden eta odoleko tentsioaren arabera, pertsona hori gezurra ala egia esaten ari den erabakitzen da. Orain urte batzuk, konpetentzia handia sortu zen telebista kate desberdinetan poligrafoa erabiltzeko orduan, baina Tele5ek makina horren erabilera areagotu egin du berriro, “famatuen” erantzunak egia edo gezurra diren jakiteko. Ez du oso normala ematen gezurrak asmatu eta kon-tatzea negozio den telebista saio-etan gezur-detektagailu bat sartu beharra, baina dibertsioen etxolak ez du aterik. Egia gezurretik bereizi nahi dutela? Bai zera! Tentelekia litzateke hainbeste lan hartzea. Telebista saio gehienak gezurretan bizi dira, ez dudarik egin; orduan, gezur-detektagailua sartu eta gezurrari zerbitzatu, hori egiten dute. Gezurrak, poligrafoaren azpiegitura horrekin guztiarekin, itzelezko egiazkotasunaren itxura hartzen du. Zer egiten du Espainiako Gobernuak, onartu duen lan-erreformaren izenean, epe laburrean lanpostu berrien sorrera aldarrikatuz?

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

izenean, epe laburrean lanpostu berrien sorrera aldarrikatuz? Politikariek politika herriaren izenean egiten dutela esaten digute, baina Europar nabarmen ugaritu egin diren xomorro xantaigile horien negozioa narkotikorik kaltegarrienaren salmenta da: gezurra poligrafoarekin pikatua.

Poligrafoarekin pikatutako gezurra egiaren labelaren sari guztiakin eta esplikazio handirik eman beharrik gabe barreiatzen baita. Alferrik da kontra egitea. Ez sinestu nahi baduzu, horrek ere ez du askorik inporta. Horrek ez du ezertan aldatuko narkotikoa-ren eragina, mundua lo dagoen bitartean. AEBetan, poligrafoa dezentente erabiltzen da, baita lanpostu baterako hautagaien hitzen egiazkotasuna neurtzeko ere, psikologoek eta psikiatreek ere erabiltzen dute beraien ikerketetan, eta Europar Batzordeak merkatu beltzean ziren poligrafo guztiak erosi ditu lan-erreforma norabide zuzenean doala lan handirik gabe esateko. Poligrafoen narkotrafikoak Europako Gobernuen konplizitatearekin funtzionatzen du. Europako Gobernuetako alprojak lagun min dituzten bankariek saldatutako poligrafoen esanetara jarri dira, eta krisia entretentzeko erakusten diguten poligrafoaren xantaia eta egia onartu dituzte. Bizio hutsa. Eta, noski, egi ahulenen edo ahulenen egien kontra hasi dira beren munstro guztiakin poligrafo zaleak. Luxuzko gezurren erosleek ez dute egia finantzatzeko arazorik eta horrek mantentzen du merkaturia martxan. Egoera ekonomiko okerreanean, merkeena aberatsa izatea baita. Poligrafo zaleek ongi baino hobeto dakite egia sinesteak gezurra sinestea baino lan gehiago duela. Errealitatea makilatu beharrik ere ez dute, beste bat asmatu, eta kito. ■





Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA

Aitzina

Gure buruak beti zerbaiten kontra hazten omen ditugu, Euskal Herrian beste nonahi baino pixka bat gehiago. Berriz ere, iragan otsailaren 3an, Baionako unibertsitatean burutu ziren Frantziako Konstituzioa eta Herri Hizkuntzei buruzko jardunaldi-tan hori zitzaigun agertu hizkuntz eskubi-deen eta legeztapenaren kariatara.

Mahaira deitutakoen curriculumak ikusiz, argi zitekeen ez zela esperantza haztekorik, ez zela aterabiderik kausituko. Kurios eta inozente, sistemaren zenbait arraildura baliagarri agertuko zitzaizkigulakoan nengoen halere. Mundu arrotza deskubritu nuen: legediarena, legegile, zuzentzaile eta interpretatzaileena, hortik beretik gure hizkuntzen alde nolakoak behar litezkeen aurtiki.

Legeak zurrinak dira, berez, idatziak eta onartuak izaterakoan, irakurriak eta beteak izaterakoan; bitxiki, eskubideen traba ekar dezakete gisa berean. Alta, legerik gabe, euskararen aukerak, den mendreenak ere, borondate onaren menpekoak dira, debekatuak ez eta haizu direnen artean.

Iragan astean, hementxe David Anautek zioen: “Maiz gertatzen zaigula ideia baten aldeko izatea eta haren defentsan (...) nondik jo ez dakigula gelditzea”. Horrela mindurik egon



JAKES LARRE

zen zenbait minutuz euskalgintza. Idatzita-ko legeak konstituzioa erasotzen duten berukatuko zaizkigu. Konstituzioa aldatzea ezinezkoa da. Gure eskubideak bidezkoak ez direla ezin sinestarazi: a + b frogatu ziguten ezinezkoak direla. Unibertsoa ez da iduriz aski zabala, bere horretan leku bat izan dezagun.

Dena dela, martxoaren 31n hitzordua dugu Deiadar kari karrika betetzeko, hizkuntzen ezagupenaren eta eskubideen alde. Gure baitan eramanki ditugun nahieria eta esperantza guztien lemaz jantzi mobilizazioa da, besterik gabe: gure aldarrikapenen entzunarazteko parada, mobilizazio zabala, lema bakarraren inguruan, Ipar Euskal Herriatik hara Frantziako Estatuko hizkuntza gutxituen defendatzaile guztiek partekatua. Burujabe izan gabe, lorpenak, zor zaizkigunak, oraino epe luze eta lan handikoak izanen dira.

Aurtengo Deiadarrak, usaian bezala, esperantza handia pizten dit eta duela gutxi entzun nituenek ez dute sentimendu hori kamustu. Euskalgintzak ez baitu erresilientzia falta, nehoiz bezain gogotsu bilduko gara euskaraz bizi nahia entzunarazteko, bide batzuk neketsegiak direla ulerturik, beste batzuk atzeman daitezkeela kontentzurik. ■



Aurtengo Deiadarrak,
usaian bezala, esperantza
handia pizten dit eta duela
gutxi entzun nituenek ez
dute sentimendu hori
kamustu

TXANDAN

Andoni Mujika



Duela zenbait hilabete *Ibilaldirik Urratsera* idatzi nuen hemen; ikastolen zentzuaz niharduen. Ordukoak indartsu baieztatzen

nator. Ea zazpi argudio garbi zerrendatzen ditudan. Bat. Euskal Herriak gizarte ekimen autoeratu-tik eraiki duen erreferentziatzeko hezkuntza esperientzia da Ikastola, mundu zabaletik behatua eta miretsia. Bi. Materialgintzaren ekoizpena eta etengabeko berrikuntza: beste zenbait hezkuntza eragilek ere erabiltzen dute eta Euskal Herri kontzeptua mimo handiz islatuzia geratzen da. Hiru. Euskal Curriculum. Lau. Elkartasun Kutxa. Araututa daude ikastola apalenei laguntzeko

Denok ala
inor ez

mekanismoak eta fondoak. Bost. Euskal Herria subjektutzat, osotasunean hartzen duen erakundea da, “kooperatiba europar” formulapean, bakarra esango nuke. Sei. Bere

etorkizuna erabakitze subiranotasun maila altua du. Zazpi. Bere etekinak (ez dago, definizioz) hezkuntza proiektura bideratzen dira osotasunean, edota taldearekin dituen konpromisoak betetzera (elkartasuna). Baina tira, oraingoan kasu zehatza daukagu begien aurrean: Lodosako Ibaialde Ikastola. Euskarak Lodosako Ikastola behar du. Ez dezatela administrazioetako txandako burokratek gure etxea enkantean jarri. ■



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Itsu

K

alapita egon da Erkidegoko hainbat mediotan EITBk gotzainek agindutako publizitate-kanpaina kendu zuelako. Iragarkien xedea gurasoek seme-alabentzat Erlijioa irakasgaia hauta zezatela ei zen. Legebiltzarreko EITBren kontrolerako batzordeak eskatuta hartu zuen erabakia zuzendaritzak, spotak igortzeak erlijio-askatasunaren printzipioa hausten zuelakoan.

Ez dakit printzipiorik urratuko zuen; bai, aldiz, nire erraiak gogaitu. Dena den, gogaitzeak-eta alde batera utzita ere, ondo baino hobeto deritzot iragarkiak kentzeari; besteak beste, orain urte batzuk emakumeen eskubideen aldeko kanpaina bat ere debekatu zuelako irrati-telebista publikoak, propaganda politikoa zela argudiatuz. Neurri berarekin neurtu behar, alajaina! Halere, kasu hartan “hainbat medio” horiek ez zuten inolako kalapitarik sortu.

Apezpikuek zentsura izan dela diote. Agian. Edozein kasutan ere, mugimendu feministari egin ziotena bezalakoxea. Ezin ahaztu, gainera, EITBn eskandalizatu eta asaldatzeko moduko zentsura askoz nabariagoak egon direla/daudela. “Sozialistekin” jazoak asko, EAJkoekin gertatuak beste asko. Gogoratu, adibidez, nola *Hitzetik Hortzera* programan argia moztera ere heldu ziren, Ortuzar eta



INGO AZKONA



Apezpikuek zentsura izan dela diote. Agian. Edozein kasutan ere, mugimendu feministari egin ziotena bezalakoxea



Oterminen garaian, jauntxoek hainbat bertsolari kantatzen ari zirena gustuko ez zutelako. Edo oraintsu *Arratsaldero* programatik kanporatuak izan zirela Siroka taldekoak presoan sakabanaketa salatzen zuen pin bat kendu nahi ez izanagatik... Medioek, horietan ere kalapitarik ez.

Gaia oso bestelakoa den arren, nik paralelismoak ikusten ditut Garzonen aferan. Izan ere, Garzon epaile oso ezaguna da gurean, euskal presoekin egindako bidegabekeriengatik: istorioak asmatu, gazte ugari frogarik gabe kartzelaratu, tortura baimendu... Epailea epaitua ikusi dugu; euskaldunon harridura eta eskarniorako, PP inguruko ustelkeria politikoa eta frankismoaren biktimen auzia ikertzean egindakoengatik. Auzitegi Gorenak zigor erdugarria jarri nahi izan dio “sistema judizialaren oinarria hautsi, eta sistema totalitarioen praktikak erabiltzeagatik”.

Euskal presoek kontra eginiko ageriko zuzengabekeriaren kontra ez genituen ikusi fiskaltza, Auzitegi Gorena, eta abar. batere kezkatuta. Oraingoan Garzonen alde askatasuna aldarrikatuz manifestatu diren aktore espainiar horiek ere ez genituen orduan ikusi askatasunaren alde manifestatzen...

Neurri berak? Itsukeria? Ez omen dago itsuagorik ikusi nahi ez duena baino. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



filman ikusi nuen, gazteleraz, hain ezaguna nuen ahots oihan oihartzuntsua, puntako atletak hanka azpian erresorteak bailutuzten kantari, gure ezta-iriz irudika ezinezko tonalitaterik gora, harrapa ezinezko notatan eroso. Whitney Houston. Zenbait herriko plazatan, hamaika aretotan gozatu izan dut oriotartu leitzarra bere bertako ahots zerrategiko ertz arindutako neurri propioko oholaz bertso kantari. Pieza batekoa. Gure On Manuel Lasarte, bere bertsokeran hitzak, esaldiak, puntuak josten burni muturrak labean nola, zenbaitetan pieza bakarrak sortuz, betiere pieza dotoreak lortuz.

The Bodyguard

Belarri onekoa, kantaera landuan aritzen zen narraskeriarik ezagutzen ez zitzaionak, eredu jarrai gaitza ondorengoentzat. Aian egindako omenaldia dut gogoan, zortziko handian kantatutakoak “zergatik maite nazute hainbeste, ni ezerez bat izan da?”. Geroztik plazan entzun ez dudun doinuak, baritono eskolatuenak nekez hobetuko lukeen berezko kantaeran. Hura izango nuen aurrez entzundako azken aldia, notaz nota, silabaz silaba gogoan itsatsita geratu zaidana. Lasarte izena entzun, bere irudia ikusi eta hiru bertso haiek entzuten dizkiot organikoak banitu bezala. Plazer bat. ■



BERTSO BERRIAK

Jexux Mari Irazu

Itzuleran jarriak



DANI BLANCO

I

Barcinaren kontuak
ez dabiltz glorian,
Jaurlaritza kiebra
jotzeko zorian,
Sabin Etxean “kezka”
PSE hobian...
Koxka batzuk beherago
burua ogian,
geroz eta gehiago
zerrenda lodian.

II

Eliza berritzeko
milioiak Lorcara,
Lodosan ikastola
zigortuz horkara,
ze gorrotok behartu
lezake hortara?
Bat gehiago baino ez
aurreko sortara...
ta lasai joango dira
gauero lotara.

III

Gipuzkoak rotonda
du karril birekin,
sarrera-irteera
gutxi ez berekin,
peaje gabekoa
ez baita bide fin.
Etxe askotakoa,
agian, Bidegin
Berriak egin ahala
zaharrak berregin...

IV

Traba guztiei aurre
eginari esker.
haur bahitzaileen gaia
lehertzear laster,
berrogei urteotan
zer gertatu da, zer?
seiehun umetik gora
ez da ba edozer
Ta orain arte inork
ez zekien ezer...

V

Jada askok burua
hauteskundeetan,
Lopez irabaztera...
—ez du esan zertan—
Urkullu amorratzen,
Otegi noiz bueltan?
ta Egiguren ere
joango da benetan...
garbi ez dagoena
nongo zerrendetan.

VI

Norekin amesturik
ez bada gauero,
Llorente, Iraola,
Muniain, Toquero...
Katalan ta Euskaldunak
kopa bila ero
palkora igo eta
bostekoa bero.
Eskuak garbituko
al dituzte gero!



DOINUA: Bizkaiko aberatsak



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Lisabö

«Entseguetako sentsazioak diskoan errepikatzen jakitea garrantzitsua da»

Moskuko taberna batean geratu gara talde irundarrarekin. Paretan zintzilik, *Rockdelux* musika aldizkari espezializatuaren azken azala, Lisaböri eskainia. Lau urteko isiltasunaren ostean, *Animalia* Lotsatuen *Putzua* diskoarekin arrakastatsu bueltatu dira, kritikak goretsiak, Primavera Sounderako hautatuak, eta beti bezain bortitz.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Dani Blanco

Taldekideak behin baino gehiagotan aldatu dituzuen arren, Lisabören esentzia ez da galzen. Nola lortzen duzue esentzia hori mantentzea?

Karlos Osinaga: Hainbat taldekide aldatu beharrak hutsuneak utzi izan dizkigu, baina

islatu nahi dugun espiritua mantentzea lortu dugu beti, jende berria aukeratzeko garaian ez ditugulako musikaren birtuosoak bilatzen, baizik eta gure musikaren filosofiarekin bat datozenak, eta horrela hautatuta, errazagoa da koherentzia mantentzea.

Irungo Moskuko Eskina tabernan, ezker-eskuin: Eneko Aranzasti (bateria), Javi Manterola (gitarra, ahotsa), Ivan Zabalegi (bateria), Karlos Osinaga (gitarra, ahotsa) eta Xabi Zabala (baxua); hitzak idazteaz arduratzen den Martxel Mariskalek ezin izan du etorri. Elkarriketan, Aranzasti eta Osinaga izan ditugu solaskide.



Eskaintzen dituzuen kontzertu indartsuak kontuan hartuta, zuzeneko taldea da Lisabö?

Eneko Aranzasti: Zuzeneko eta diskoko taldea dela esango nuke, bi fazetak gustuko ditugu. Talde askok diskoa ateratzen du zuzenean jotzeko, baina guk biak zaintzen ditugu. Batzuek esan izan digute diskoko detaileak galdu egiten direla kontzertuetan, baina alde batetik galtzen duguna, bestetik irabazten dugu, intentsitate aldetik adibidez. Barrenak husten ditugu kontzertuetan eta bira guztian abestiak bizirik mantentzen saiatzen gara.

Hitzak Martxel Mariskalek idatzi ditu oraingoa ere, taldeko seigarren kideak, esan ohi duzuen moduan. Amorruez, malenkoniaz, garrantasunez beteriko hitzak dira. "Ederra bezain mingotsa da bizitza"?

K. Osinaga: Esaldi horrek, diskoko beste hainbatek bezala, ondo islatzen du Martxelen testuetako kontraste mundua. Hainbatek dio ilunak direla hitzak, baina guk, barrutik behintzat, ez ditugu pesimista ikusten, bizitzaren diagnostiko orokor gisa baizik: hau da dagoena eta hortik abiatuta goazen bizitzera eta bizitza maitatzera. Martxel gai da esaldi bakar batean erretratu osatua irudikatzeko: argazki abstraktua baina aldi berean oso argia, bere kontraste eta osagarriekin. Musikak beste maila batera eramaten ditu hitzak, edo alderantziz, musikaren abstrakzioak behar zuen zentzu guztia hartzen du hitzekin janztean, magikoa da, eta emaitza ez zaigu iluna iruditzen, askatzailea baizik. Kontua da askatzeko lehenik bidaia guztia egin behar duzula, oinazeen murgildu, baina ez hor geratzeko, leihora ireki eta hortik ateratzeko baizik.

Lirismoa doinu gogorrekin uztartzen duzue. Poesia modernoa da zuena?

E. Aranzasti: Lortu duguna da Martxelen hitzek eta taldearen musikak bat egitea, disko honetan inon baino gehiago, eta gauza handia da hori. Berak badaki gure musika irakurtzen eta guk bere hitzak entzuten. Landu egin dugun zerbait da, lanikidetzan aritu gara uneoro, eta kimika hori, elkargune hori lorzea izugarria izan da.

Posthardcore estiloari eutsiz, gordinagoa da azken diskoa?

E. Aranzasti: Aldaketa nagusien artean dago oraingoa txelarik ez dugula sartu, kanta hauetan ez geniolako lekuri topatzen, eta hori sumatu da.

K. Osinaga: Diskoa bukatu baino hilabete lehenago ez genekien zenbat kanta izango ziren, kantek eurek esan digute nondik joan, jolas bat izan da haien eta gure artean. Korrontearen gisan, kantek bihurtu bat



"Deiadar eta hitz errezipituetan ere aurkitzen dut melodia, lineala dirudien horretan nabardurak sortzen duen efektua sekulakoa da"

KARLOS OSINAGA

har dezakete, guk beste bat... eta azkenean ateratzen da atera beharrekoa. Beti egin dugu horrela, saiatu zaitezkeelako norabidea bortxatzen, baina eroso ez bazaude...

E. Aranzasti: Beti saiatzen gara ateak ez ixten eta bukaerara arte ideiarik ez baztertzen.

K. Osinaga: Eta emaitza da, aurreko diskoarekin konparatuz, une lasai gutxiago daudela, eta momentu gordin ugari, pasarte bortitzak. Lan ezberdina da, baina oinarri berarekin, ahuntzak beti larrera, nahiz eta badagoen eboluzio bat, edo inboluzio bat, auskalo.

Abesti bakoitza asko lantzen duzuela dirudi, moldaketak-eta entzunda.

E. Aranzasti: Abestiak baino gehiago, sentazioak bilatzen ditugu, entseguak grabatzen hilabeteak eman genituen sentazioen bila.

K. Osinaga: Bai, bueltara ematen ditugu hilabeteak eta bat-batean harrapatzen duzu,



Ezari-ezarian, 13 urte

1998an Irunen sortuak, *Ezarian* (2000) diskoarekin estreinatu ziren eta *Egun bat nonahi* EParen ostean (2002), *Izkiriaturik Aurkitu Ditudan Gurak* (2005) eta *Ezlekuak* (2007) diskoak argitaratu zituzten. Iazko lanak 40 minutu pasatxo ditu, sei kantatan banatuta: *Oroimenik gabeko filma*, *Ez zaitut somatu iristen*, *Oinazearen intimitatea*, *Gordintasunaren otordu luzea*, *Laztan isilen deiadarra*, *Ezereza mugak*.

"Azalean agertzeak baino ilusio handiagoa egiten dizu irakurtzen duzunean kritikari batek idatzitakoa bat datorrela transmititu nahi dugunarekin"

ENEKO ARANZASTI

lortzen duzu bilatzen ari zinen sentsazioa. Garrantzitsua da entseguetan lortutako sentsazioa diskoaren grabazioan errepikatzen jakitea, eta horra nola iritsi lantzen duzu, zein bide hartu horretarako. Azken finean, nahiz eta azkeneko hilabeteen hasi diskoaren hezur-dura muntatzen, aurretiko lana egina dago.

E. Aranzasti: Bai, nahi gabe, egunero lantzen joaten gara, kontziente ez izan arren. Emaizta ez da azken orduko tonbola. Sentsazioek soinuarekin ere badute zerikusia eta Garaten grabatzeak, adibidez, han bateriek hartzen duten soinuak sentsazio ezberdinak sortzen ditu, lokaleko grabazioekin alderatuta. Horrek guztiak ere eragina dauka diskoa egiterakoan.

"Post" delako horren baitan, melodiaren kontzeptua beste era batera ulertu behar dugu?

K. Osinaga: Niretzat pasarte oso melodikoak daude, baina norbaitek galdetu dezake,

"eta non daude ba?". Niretzat, batzuetan zarata bat melodia zoragarria izan daiteke, edo akorde arraro bat denboran mantentzea... Adibidez, akorde berari 20 segundoz eustea, beste elementu batzuetan aldaketa txikiak erantsiz, hor sortzen den harmonia ederra izan daiteke.

Karlos, bereziak dira ahotsarekin egiten dituzun jokoak: batzuetan, kantatu baino, deiadarak dira, edo hitz errexitatuak...

K. Osinaga: Bai, eta kasu batzuetan hasieran ez zuten horrela izan behar eta hala bukatu dute. Baina aurreko erantzunaren ildotik, deiadar eta errexitatutako hitz horietan ere aurkitzen dut melodia, beharbada oso lineala dirudien horretan, ñabardurak sortzen duen efektua sekulakoa da.

Zuk, Eneko, bateria jotzen duzu Ivanekin batera. Ez da ohikoa talde berean bi bateria aritzea, elkar ondo ulertzen duzue.

E. Aranzasti: Elkarri begiratzea da gakoa. Jende askok esaten digu biok egiten duguna bakarrak egin dezakeela, eta gauza batzuetarako arrazoia daukate, beste batzuetarako argi dago ezetz, lau hanka eta lau beso beharko genituzkeelako, baina bestela ere, pertsona bakarrak egin dezakeen hori biek batera egiten dugunean, emaitza ezberdina da: indar handiagoa dauka, bere zergatia dauka.

K. Osinaga: Ez da kolpeak banatzea, entseguetan bietakoren bat falta bada, asko nabaritzen da, falta handia sumatzen da.

E. Aranzasti: Egia esan, ohitu egin naiz eta Ivan falta zaidanean oso ezberdina egiten zait, nahiz eta gainerako musikariak aurrean izan, beste bateriarekin konplizitate berezia daukazu eta kontzertuetan ere elkarren oso gainean egon behar dugu, oso aberatsa da hortik ateratzen dena. Ikusteko ere polita da, eszenatoki gainean bi bateria batera jotzen ikusteak badu bere zera.

Hasi zinetenetik goraiatu zaituztete kritikariek eta kultuzko talde bilakatu zarete.

E. Aranzasti: *Mondosonoro* aldizkarian, Joan Lunak dio nahiz eta aldizkari horretako azala eta *Rockdelux*-ekoa eman diguten, nahiz eta 2011ko disko onena izendatu duten gurea, ez dugula jarraitzaile berri gehiago lortuko, *"no van a sumar seguidores a su causa"*, idatzi du. Guk argi daukagu ez garela masei zuzendutako talde bat eta ez dut uste orain kritika onak jasotzeagatik Lisabören kontzertu bakoitzera 600 pertsona joango direnik eta 5.000 disko salduko ditugunik. Hala ere, eskertzeak dira kritika onak, baina hor ere, denean bezala, irizpide eta ikuspuntu landuagoa duen jendea dago, eta azalean agertzeak baino ilusio

handiagoa egiten dizu irakurtzen duzunean kritikari batek idatzitakoa bat datorrela transmititu nahi dugunarekin, konplizitatea dagoela.

K. Osinaga: Hala da. Eta aldi berean azala ematea eskertzen duzu, normalean halakoetan zerbaiten truke ematen dizutelako azala, eta gu bezalako talde bat hobesteak esan nahi du zuzendaria-ri asko gustatu gatzazkiola, gure aldeko apustua egin duela.

Kritikaren sostengua ikusita, amildegia dago kalitatearen eta arrakasta komertzialaren artean?

K. Osinaga: Musika ulertzeko erak daude eta gaur egun nagusitu den irizpideak produktu bilakatu du musika. Adierazpen modu bat izan ordez, aisialdirako produktua da eta leku batzuetan musika gisa ulertzen dena ez da guk musika gisa ulertzen duguna.

E. Aranzasti: Musika krisian dagoela dioten garaiotan, inoiz baino gehiago bihurtu da musika kontsumo azkarre-rako produktu, marka komertzialen babespean. Nahi gabe edo nahita, beti saiatu gara sistema horretatik aparte mantentzen.

Anari, Hotel eta Inoren Ero Ni-rekin batera sortu zenuten Bidehuts zigiluan ere bestelako filosofia jarraitzen duzue.

K. Osinaga: Hasteko, guk esaten dugu ez dela zigilua, ez dela diskoetxea, bai bada marka bat, nahiz eta ez zaidan hitza gustatzen, label bat, taldearen lanak zabaltzeko orduan identifikatu daitezzen, baina gure taldeen artean autoekoizpena bultzatzen dugu. Etekin ekonomikoak lortzea ez da helburua. Horrez gain, Lisabök Creative Commons lizentziapean argitaratzen du.

Laster biniloan aterako duzue *Animalia Lotsatuen Putzua*. Zer ekarpen egiten dio biniloak dagoeneko argitaratu duzuen CDari?

K. Osinaga: Ahal dugun guztia biniloan erosten dugu, maite dugu biniloa. CD bat erosteak ez du morborik, gauzarik zentzugabeena da CDa, fisikoki bata eta besteak duten presentziatik hasita, objektu gisa; beharbada fetitxismoa izango da, baina hala bizi dugu eta horregatik atera nahi dugu gure musika maite dugun formatu horretan ere. Gainera, entzuterakoan ere nabaritzen da: binilo bat egiteko masterra grabatzen da lehenik, eta konprimitze analogiko bidez egiten da; bada,



"Askatzeko lehenik bidaia guztia egin behar duzu, oinazeen murgildu, baina ez hor geratzeko, leihoa ireki eta hortik ateratzeko baizik"

KARLOS OSINAGA

prozesu horretan, ukituren bat ematen dio soinuari. Detaile txikiak dira agian, baina nik neuk grabatutako diskoak entzun ditut, gero masterra entzun dut, eta badauka zer edo zer... Ez dakit, beharbada autosugestia izango da, baina nabaritzen dut alde.

E. Aranzasti: Musika grabatzen hasi zirenetik formatu pila bat atera dituzte, berriak agertu ahala desagertzen dira zaharrak, baina biniloa beti mantendu da. Aipatzen genuen musikaren filosofiarekin ere zerikusia izan dezake, gaur egun etengabeko kontsumorako dagoen joerarekin. Baina biniloa hor mantendu da, eta denda espezializatueta biniloa aurkituko duzu beti, musika estilo guztietan.

Bira hasi berritan, zein helburu duzue disko honekin?

E. Aranzasti: Kontzertuetan sentsazio onak izaten saiatzea eta jendearekin feedbacka lortzea da gure asmoa.

K. Osinaga: Bilatu baino, ea zer aurkitzen dugun. Hau pasaporte bat da lekuak eta batez ere jendea ezagutzeko, dagoeneko gure lagunak direnekin berriz elkartzeko, Bartzelonan, Madrilan, edo aurretik egon garen hainbat lekutan. Jende hori hor izatea luxu handia da.

Zer dauka Bidasoaldeak hainbeste talderen harrobi izateko?

E. Aranzasti: Ez da kasualitatea. Musikarekiko zaletasuna aspaldikoa da hemen, urtetako jardunak fruituak ematen ditu, eta horrez gain garrantzitsua da jendeak duen jarrera. Urte asko daramatzan jendeak jakin du sartzen diren talde eta musikari berriak modu naturalean hartzen, goitik eta harrokiarekin begiratu gabe. Errespetua eta hasiberriak ezagutzeko grina dago, eliterik sortu gabe.

K. Osinaga: Jarrera horrekin egiten den musika barnerago iristen zaizu, gertuko ereduaren eragina barneratzen duzu. Gure herriak badu oinarri hori, baina Madrilgo musikariekin adibidez ikusi dut oso profesionalak direla gehienak. Badirudi maila bat gorago egoteko egiten dutela musika, eta naturaltasuna desagertu egiten da. Jende horren abiapuntua ez da musika egitea gustuko duzulako eta ea

bideak nora zaramatzan; abiapuntua da helmuga jakin batera iritsi nahi izatea eta zer bide egin hara iristeko. ■





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com



Liburuak

KRITIKA

Bi aurpegi

Helduen literatura

Igor Estankona

GURE GORPUTZ eta arima galkorrei emandako poema liburua da Mikel Alberdi Irizarrena, eta gorputzari eta arimari egindako trazu lausodun omenaldia dira Lurdes Larrañaga Sanzen marrazkiak. Horra liburuaren bi aurpegiak, bakarrean bilduak. Titulua zehatza eta egokia begitandu zait, hizkien eskaleen antzera baitabil poeta ibili ere, maileguan hartuz erreferentzia klasiko eta kultistak, keinu eginez jainkoei, artistei, idazleei eta hiriei... are Négritudeari, eta naturaren indarrari. Ariketa eskapista eta surrealista etengabekotan aurkitu ditu Alberdik bere burua eta egia mikatz bat: “bidaia oinez egiten da/ diote poetek/ nire pauso bakoitza/ usteltzen jarraitzeko/ borondate isila/ besterik ez da”. Edo “jadanik ez dut hetero edo homo izan nahi/ guruinik aldarrikatu/ identitaterik bermatu/ utz diezaiodan nire gorputzari/ musika berriak jotzen...!”.



Erdigune obsesibodun eraztun jakinetan barna garmatza idazleak. Sexua, justizia, estetika baten bilaketa... Horiek

Hizkien eskalea.
Mikel Alberdi.
Autoedizioa.
63 orrialde.

denak ez dira gaia, baina bai mintzagaia. Dena bere baitan hartuz eta lerro bakoitza bustiz, oster, heriotza dago nonahi. Edo horixe begitandu zait; gai nagusia patu antzeko bat dela eta bizitza honetako estrategiek ez dutela inoiz lortuko azken buruko herio nahasaraztea.

Unea poesiaren aurkakoa ere baden lan honetan orekaren bilaketa eta harmonia ez dira helburu. *Hizkien eskalea* hanpatua da, gordina. Existentzia bera biluza eta gogorra denez, poetak biluzik eta gogor ekiten dio kontenplazioari: “ez dakit zergatik nahi dudan idatzi/ idaztea kostatzen zait eta hitzek ezin dute inoiz/ nire pentsamendu jariora errenditu/ ez dakit idazteak ez ote duen zailtzen/ nire desagertze-ko bokazioa...”. Baina desagertuz-desagertuz joan beharrean gabetzen, kargatuz-kargatuz nahi du gartu poesia bat pertsonaletik kolektibora doana, eite proportzionatuetatik moderniarra eta hitz jokora egiten duena, eta isiltasunetik hitz jarioa.

Mikel Alberdik, finean, apainduraz kargaturiko poesia purua egin nahi izan du. Lortzen zaila den beharlekua da hori, ordea. Gusturago sentitu naiz *Ez izan* poemako mezu soilarekin, kiribildu eta konplikatu egiten diren irudi-mosaikoekin baino. Kosmopolitismoz mozorrotutako hala-holako poemak eta inora ez daramaten bide luzeegiak hartu dituela iruditzen zait behin baino gehiagotan, eta hain zuzen idazlearen neke horiek bihurtzen direla irakurlearentzat traba. ■



Mungia

Liburu azoka otsailaren 24etik martxoaren 4ra, Mattin plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Leihoak.

Lain.

Elkar.

Iraupena: 37'11".

13 euro.

Gaztetasunaren eta baikortasunaren korrontea

KRISTINA Aranzabe eta Leire Berasaluze oso gaztetan hasi ziren musika egiten eta hainbat sari lortu zituzten. Gerora, beste hiru musikari gazterekin batera rockera salto egin eta taldea osatu zuten Villabonan. Honako hau bigarren diskoa da, lehena baino baikorragoa eta anitzagoa. Taldearen ezaugarri nagusienetakoa Aranzabe eta Berasaluzeren ahots tinbreek rockarekin lortzen duten kontraste nabarmena da; nolabaiteko indarra eta

melodia garbiak bat eginda. Bada tarte akustikorik, punk-popa, folk elektronikoa, pop elektronikoa edo jostaria, rock gitarreroa eta baita countrya ere. Eta badago, baita ere, iluntasunaren eta argitasunaren arteko tirabiran, erritmo aldaketekin jolasean dagoen pieza nabarmenik ere. Oraingoan leihoak erabat ireki eta gztetasuna barreiatu nahi dute lau haizetara.

www.myspace.com/laintaldea

Leire Berasaluze - Lain

«Erritmo erraz batek funtzionatzen badu, atzetik doaz 50.000 antzekoa egitera; nortasuna galdu da»

"Kalera irten da gaur mozorrorik gabe, berriro jaio da". Tratu txarren kontrako kanta baikorra egin duzue.

016 emakumearen indarkeriaren aukako abestiari Lain ukitua eman diogu, gauza negatiboak utzi eta positiboak hartzeko. Tratu txarrak salatzeak gonbitearekin batera, amesgaiztoa amaitzeko eta bide berri bat eraikitzeke esperantzaz.

"Ez beldur izan ni joaten naizenean", *Azken antzezpena*. Gauzak dauden moduan, musikan luzaroan irauteko asmoa daukazue?

Noski, guretzat musika ezinbesteko bihurtu da eta nahiz eta zinez borrokatu beharko dugun, bertan mantentzen saiatu nahi dugu, hil gabe. Baina inoiz ez da gure helburuetako bat izan hau egiteari esker bizitzea, zaletasuna da.

"Janari azkarra"-ren apologia egiten duzue. Hala kontsumitzen da gaur egun musika ere?

Bai, gaur egun, jaio eta bigarren abestirako hiltzen da musika. Gaur-



Lain taldea. Leire Berasaluze lehena da ezkerretik.

ko musika irratiak, Youtubek edo Spotifyk botatzen digutena da. Erritmo erraz batek funtzionatzen badu, atzetik doaz 50.000 talde antzeko abestiak egitera; nortasun

asko galdu da. Singleek funtzionatzen dute: abesti bat entzun eta jendeak ez du diskoa erosten, jaitsi egiten du.

Estilo eta giro asko lantzen dituzue ahotsarekin kontrastatuta. Zer osagai behar ditu Lainen kantu batek?

Dueto soila izateari utzi nahi genion. Erritmo eta akorde ilunak, ahots argiekin kontrastatzen saiatu gara. Lainen kanta batek beharrezkoa duen osagaia guk egina izatea da, denon artean landutakoa.

Leihoak itxi kantak erritmo eta melodia bereziak eta aldaketak ditu; berezia da.

Egoera pertsonal negatiboek sortu dute hitza. Oinarriari dagokionez, Javi baxu jotzailea jailetatik goizaldean etxera iristean, baxua hartu eta atera zitzaion lehenengo gauza izan zen abestiaren introa. Gero lokalera ekarri eta di-da batean atera zen. Guretzat esanahi berezia du. ■



Ezpalak

JON TORNER

Errusiar konpositoreen piezak Bilboko Euskaldunan



TCHAIKOVSKI, Glinka, Borodin, Balakirev, Mussorgsky, Rimsky-Korsakov, Scriabin eta Rachmaninov konpositore errusiarren piezek osatuko dute Bilboko Euskalduna Jauregiko ‘Musika-Música’ jaialdia, martxoaren 2tik 4ra bitartean. *Errusiako Distira* izenburupean, gehienez 45 minutu iraungo duten 69

kontzertu eskainiko dira Euskaldunako sei aretoetan aldi berean. Besteak beste, Bilboko Orkestra Sinfonikoak, Varsoviako (Polonia) Sinfonikoak eta Galiziako Real Filharmoniak parte hartuko dute aurtengo edizioan. Musika klasikoa herritar guztiei hurbildu asmoz, sarrerak 5 eta 9 euro artean jarri dituzte salgai. Egitarau osoa: www.bilbao700.com.

Anselmo Guineari buruzko erakusketa monografikoa Bilbon

BILBOKO ARTE EDER MUSEOAK Anselmo Guinea (Bilbo, 1855-1906) pintorearen 85 margolan bildu ditu, Modernitatearen jatorriak euskal pinturan izeneko erakusketa monografikoan. “80 lanetik gora bildu dira, erdia baino gehiago sekula argitara eman gabeak, eta beste asko jendaurrean jarri gabeak duela 100 urte baino gehiagotik”, dio erakusketaren afixak. “Beraz, aukera aparta da margolari honek argiarekin zuen bertuosismo finaz eta argia isaltzeko modu bikainaz gozatzeko; izan ere, funtsezko margolaria da mende aldaketako euskal pinturaren eraldaketa estetikoak ezagutu ahal izateko. Erakusketa maiatzaren 20ra arte izango da ikusgai. Argazkikoa *Avenue de Clichy* (1892) margolana da.



Jorge Oteizaren

kaleko eskulturetan oinarritutako dokumentala grabatu dute ikus-entzunezko teknologien graduondoko ikasleek. Hogei minutu irauten duen dokumentala artistaren kaleko eskulturetan oinarritu da. Maiatzean aurkeztea espero dutela adierazi dute, eta Irudi eta Soinu eskolaren webgunean doan deskargatzeko aukera egongo da. Horrez gain, DVD formatuan ere kaleratuko dute hezkuntzan erabiltzeko asmoz. Argazkian, Iruñeko Yamaguchi parkean paratutako *Velázquezi omenaldia* altzairuzko eskultura.



WIKIPEDIA



Euskal Herria Zuzenean

jaialdiko lehen taldeak jakinarazi dituzte antolatzaileek: Public Enemy (argazkian), Bebe, Sepultura, Esne Beltza eta The

Bloody Beetroots. Jaialdia ekainaren 29tik uztailaren 1era izango da Heletan, Nafarroa Beherean. Sarrerak jarri dituzte salgai eta hiru eguneko bonoa 41 euroan eskura daiteke.

Julio Jorquera txiletarraren *Mi último round* filmak irabazi du Zinegoak Gay-Lesbo-Trans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko bederatzigarren edizioa, fikziozko film luzeen atalean. Txile hegoaldean kokatua, boxealari eta sukaldari gazte baten arteko amodio istorioa kontatzen du lanak. Jorqueraren hitzetan, “salaketa bat da, amodiozko istorio batean bildua”. Epaimahaiak “nortasun eta estilo propioa” dituen lana saritu nahi izan du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

MIKEL GARCIA IDIAKEZ



Ihesi

AINGERU EPALTZA

Argazkiak: Josu Santesteban

Euskal Herria ezagutuz:

Iruñea



Zubirik zubi

Ibaia da egungo euskaldun gehienek ahotan dabilen hitza. Ugaldea erran izan zaio –uhalde, ubalde, ubelde, uhalte– Nafarroa euskaldunaren puska handienera. Iruñeko biztanleen ezpainetatik ere ez zen bertzerik aterako Argaz mintzatzean.





San Pedro, Erdi Aroan eraikitako zubia, Iruñeko zaharrena apika. Aurreko orrialdean, Magdalenako zubia.

ARGAREN ABAROAN sortu zen Iruñea. Argari so eraiki zen hiri zaharra eta Argaren besarkadak itxuratu zituen Iruñeko laborari auzoak. XX. mendearekin batean hautsi zen, ordea, Iruñearen eta Argaren arteko ezkontza. Ugaldetik urrun eraiki zen hiri berria. Ugaldeari bizkar emanda bizi izan ziren, luzaz, iruindar gehienak. Bigarren milurtekoaren azken urteetan Argarekin berradiskidetu da hiriburua. Egun, Argako ibai parkea hiriko berdegunerik garrantzitsuena da, milaka iruindarren eguneroko pasealeku eta kirol toki. Trukean, erroto aldatu dira erreka bazterrak.

Barañaingo mugatik Irozko zubiraino, 22 kilometro ditu Argari hegiz hegi egiten dion ibilbideak. Oraingoan erdiak baizik ez ditugu urratuko. Hain juxtu ere, Iruñeko mugapean dauden hamaika kilometroak.

Magdalena, Iruñea nekazaria

Iruñean 28 zubi daude egun Argako alde batetik bertzera iragateko. Batzuk Erdi Aroan erabili zituzten gure arbasoek. Bertze batzuk egin berriak dira, edo ez hain aspaldi. Horiatariko baten azpitik abiatu gara, Iruñearen ipar-ekialdeko mugan.

Burlatako zubian elkarri musu ematen diote Burlatak eta hiriburuak. Ugaldea ezkerretara dugu, azken egunetako elurrak hazixea. Ur uherrak bizi-bizi joaki dira hemen, luze gabe mantsotuko badira ere. Orain, mota desberdinetako basahateak igerika dabilta ur azalean. Duela hogeitaz urte nekez ikusiko genuen halakorik. Ibai parkeak otzandu du Arga bazterretako basatasun apurra, baina ez beti naturaren kaltetan. Berriki, igaraba bat begiztatu omen dute ahateak elkarri mokoka ari diren tokian. Egun, berriz, piraguistekin etsi behar dugu, hotza arraunka ikaratzen. Alde honetan, zenbait kirol elkarte daude ur-ibilguaren ertzetan.

Dena ez da, alabaina, eraikin eta kiroldegi. Nekazaritza bizirik dago oraino Iruñean. Paisaia baratzeek

**Dena ez da, alabaina,
eraikin eta kiroldegi.
Nekazaritza bizirik dago
oraino Iruñean. Magdalena
auzoan gaude. Iruñeko
azken abeltzainak hortxe
ditu bere
pentze gizenak**

eta negutegiek pikardatzen dute gure eskuinaldean. Magdalena auzoan gaude. Hemengo barazkiak preziatuenak –eta karioenak– dira Iruñeko merkatu plazan. Aziendak ere ez dira falta, behorrak bereziki. Iruñeko azken abeltzainak hortxe ditu bere pentze gizenak.

Caparrosoren errota aitzinean dugu, berriki berreraikia eta jatetxe bilakatua. Haraino jo nahi izanez gero, zaldaina zeharkatu beharko dugu, sigi-saga, ur azala ia-ia ukituan. Ez da beti pasabide finkoa izan, ezta hain dotorea ere. Duela 10-15 urtera arte, erreka zolan landaturiko porlanezko oinarri batzuen gainean oholak paratzen zituen Udalak, udan jendea iragan zedin. Sasoi ederra akitzean, oholak kendu eta biluzik gelditzen ziren porlanezko oinarriak. Iruñeko mutikoen inimiziazio proba suerte bat zen haien gainetik pasatzea. Saltoka egiten genuen, oinarriaz oinarri, neguak harrotutako urak, orroka, zapata zolak bustitzen zizkigun bitartean. Gaur egun ere, hobe hona ez hurbiltzea uholde garaietan.

Begipean gauzkate Iruñeko harresiek eta katedralak. Ezkerretara, Magdalenako zubi zaharra, Donejakueko erromesen pasabidea.



Ezkerrean Caparroso errota, berriki jatetxe bihurtua; erdiko argazkian, errotatik hurbil dagoen zaldaina zeharkatzen ari dira paseoan dabiltzan herritarrek, ahateei so; eskuinean, behiak Magdalena inguruan.

Alde berean gelditu zaigu, ehun metro gabe, Txantreako zubia ere. Alemanes aldean sartu gara. I. Mundu Gerlaren garaian errefuxiatu alemaniar batzuk Iruñean aterpetu eta horiek ekarri zioten izena: Argan bainatzeko ohitura omen zuten, hala udan nola neguan. Adosatu modernoak nagusi dira hemen. Ugaldearen bertze aldean Zigandaren errota dugu ikusgai; abian da oraino, El Molino ikaste-txearendako argindarra ekoizten.

Arantzadi, suntsiketaren atari

Ibaia gurutzatu dugu oinzubi berri bat erabilita. Arantzadin gaude. Hona berriz baratzeak eta berotegiak, nekazari etxeen ondoan. Zenbait jauregitxo ere ageri dira han-hemen. Iruñeko behialako familia aberatsek horietan egiten zuten uda sasoia. Gaur egun, aldiz, mugimendu handirik ez da sumatzen, ez batzuetan ez bertzeetan. Iruñea laborarian sartu gara berriz. Ez luzerako. Baratzezainez gain, hondeamakinak ere lanean ari dira.

Baratzeak, pentzeak, ibar-basoa... Deus ez da izanen luzerako hemen. Udalak "berrantolatu" nahi du Arantzadi. Aparkaleku bat, bide andana, soropil ongi zainduak eta "baratzezaintza interpretatzeko zentroa" egin nahi ditu, alde hau iruindarrei "hurbiltzea" estakuru. Inork ez ditu "hurbildu" behar izan, bada, han eta hemen ikusten

diren ibiltari, txirrindulari eta lasterkariak. Zentrotzar baten premiarik ez du, bada, denen begien bistan egiten den jarduerak.

Denbora bateko Iruñearen usaina oraino atxikitzen duten azken bazterretariko bat ezagutzeko denbora guti du gurekin batera bide hau egiten ari den balizko ibiltariak.

Krisia Arrotxapean

Ugaldea zeharkatu dugu berriz. San Pedroko zubi Erdi Arokoaz baliatu gara horretarako, Argak inguru honetan osatzen duen meandroaren bertze aldean. Runa parkean sartzeko, berriz, El Vergelgo zubi berri samarraren azpitik pasatu gara. Hemen, krisi ekonomikoaren ondoriozko lazgarrienarekin egin dugu topo: bi etxegabe, bakoitza ohe batean sartuta, lo itxuran, beren puskak inguruan dituztela. 1°C baino gehiago ez da inguruko tenperatura.

Arrotxapeko baratzeen hondarrak ageri dira gure inguruan. Erre-

ka aldera, berriz, zurzuriak, sahasak eta haltzak zutik. Bideak harresi zaharretara hurbildu gaitu berriz. Gainean dugu erregeen jauregia izan zena. Larru-apaintzaileen zubiaren azpian, ahateak ausarki. Haratago, bertze elkarte tiki batetik, piraguak ari dira uretaratzen gazte batzuk. Aldean, entzierroko zezenen ukiulu zaharraren orde z Udalak zutitu duen eraikin espantagarria. Ugaldeaz bertzaldera, Larru-apantzailen auzoa izan zenetik gelditzen den azken etxea dugu ikusmiran. Okupa batzuek sutea eragin zuten bertan, joan den udazkenean.

Alde batera utzi dugu Plazaola zubia; gaintik iragaten zen Donostiarako trenbidea. Oblaten zubi berriari ere muzin egin diogu. Izan zen proposamen bat hura Kostarapea bataiatzeko, inguru honetako toponimo zahar batez baliaturik. UPNk uko biribila egin zion, eta parean dagoen komentua haren hobetsi. 200 bat metro haratago, Santa Engraziako zubian barna iragan dugu berriz ere ugaldea, izen bereko presaren ondoan. Autoei utzi diegu Cuatro Vientosko zubia.

Sanduzelain, berria eta zaharra

Gure ibilbidearen azken auzoa da Sanduzelai. Eugiren lorategian barna urratu dugu lehen tarte. Pilotalekua ere badu, azkar dabiltzaren eskura. Gibelera utzi dugu

**Arantzadin gaude.
Baratzeak, pentzeak,
ibar-basoa... Deus ez da
izanen luzerako hemen.
Baratzezainez gain,
hondeamakinak ere
lanean ari dira**



Hodien oinubia, Udalak oinezko-
endako ondutako burdin meta.
Begiendako bazka ederragoak dira,
inondik ere, Biurdanako errota eta
presa, Argak Iruñeko mugapean
marrazten duen zabalgunerik han-
dienean.

Handik goiti, azkartu dira berriz
ugaldeko urak, eta gu ere ziztuan
abiatu gara haiekin batean. Kasik
ohartu gabe pasatu gara Sanduzelai-
ko zubi zabalaren azpitik. Eskuinal-
dean, auzoko etxe berriak ageri dira.
Ezkerraldean, berriz, Biritxitu,
Iruñeko hilerria.

Erdi Aroko bertze zubi bat ager-
tu zaigu parera: Miluze. Inguru
hauetan nafar errege batek –Karlos
II.a Gaiztoak– hainbat urkamendu
eginarazi zituen, eta horri loturik
gelditu da zubia herriaren memo-
rian. Izena –“mihi luze”– hortik
etorki. Filologoek, ordea, ezeztatu
dute guztia. Kaka jende ustela, filo-

**Erdi Aroko bertze zubi bat
agertu zaigu parera:
Miluze. Inguru hauetan
Karlos II.a Gaiztoak
hainbat urkamendu
eginarazi zituen. Izena
–“mihi luze”– hortik etorki**

logoak, kontakizun polit bat honda-
tzeko gupidarik ez duena.

Nafarroako erdialdeko ohiko
ibar-basoetako batean barna egin
dugu gure ibilbidearen azkenaurre-
ko atala, makal luzeen gerizapean.
Urrunxeago, baratzeak berriz.
Negutegiak. Galsororen bat. Iruñe-
ko azkenetarik.

Noizbait, industria pabiloiek lekua
ebatsi diete karduei eta azei. Landa-
benen gaude, hiriko industrialderik
handienean. Igandea balitz, sekulako

mugimendua ikusiko genuke bazter
honetan. Milaka iruindar zahar eta
milaka iruindar berri, eskuak bete
zaku, Landabengo merkatura bidean
edo hortik bueltan. Enpresei ez ezik,
Landabenek Iruñerriko aire zabaleko
azokarik handienari ere ematen dio
geriza. Hemen gauzatzen da, astean
behin, Nafarroako ikuskizun multiet-
nikorik jendetsuena.

Ez da igandea, alabaina, astegun
buruzuria baizik. Hotz da, ilundua
du. Kausitzen ditugun iruindar
bakanek zer jatorritakoak diren
ezin erran, hain tapaturik baitoaz.
Eskuinaldeko enpresetan itzaltzen
ari dira argiak. Begi parean dugu
Landabengo zubia, Iruñeko hego-
mendebaldeko muga. Argak
Barañainen barna segi-
tzen dio bere bideari, baina gu gabe egin
beharko du hemendik
aitzina. ■




EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Upel handiak. Kolore bat baino gehiago daukan minerala. 2. Zomorro, mamorro. Bi, erromatar zenbakiz. 3. Nafarroako urtegia. Marmol, haitzurdin. 4. Elizetako kanpandorean dagoen metalezko instrumentu. Jardun, eragon. 5. Oka. Azpikoz gora jarri. Australiako ugaztuna. 6. Ekartzen nau. **Argazkian**. 7. Itsasontzietan erabiltzen diren soka sendoak. Lehorte. 8. Bizkarrezurra osatzen duten hezurretako bakoitza. Uruguaiako herriar.

Goitik behera:

1. Ume koskor. 2. Eskularruz egiten den pilota jokoa. 3. Aranondoaren fruitu. Jabetasuna adierazten duen atzizkia. 4. Kilometro. Musika tresna handia. 5. Lokarria, lotura. 6. Pozkorra, alegera. Letra grekoa. 7. Entzuten ez duena. Nafarroako herria. 8. Zurikeria, lausengu. 9. Deus ere ez. 10. Ene!, oi! Nafarroako mendatea. 11. Kalabaza. 12. Zapata. 13. Akats, narrio (alderantziz). 14. Kontserbak edukitzeko, latorriz egindako ontzia. 15. Ahuntzaren ar.

Gurasoei mezua

Guraso maiteak: kezkatzen hasiak izango zineten bi astetan ez dizue dalako deitu. Oraintxe emango dizuet azalpena, baina irakurtzen jarraitu aurretik, eser zaitezte, mesedez.

Joan den astean sutea izan zen gure etxean. Leihotik behera bota behar izan nuen nire burua eta aldakak hautsi nituen. Ebakuntza egitear zuek, odol-analisiak egin eta haurdun nengoela esan zidaten. Ideiarik ere ez daukat zein izan daitekeen aita.

Etxea erre eta gero ez neukan nora jo, eta ia ezin nintzen mugitu. Eskerrak ikaskide batzuek beren etxera joateko

aukera eman zidaten! Astebete daramat beraiekin; herenegun, denak botaka esnatu ginen. Ospitalera joan eta esan digute norbaitek gaitz arriskutsu bat erantsi digula eta inkomunikaturik egon behar dugula berrogeialdi batez.

Eta hori dena esan ondoren esan behar dizuet ez dela sute-rik izan, ez dudala ezer hautsi, ez nagoela haurdun eta ez dudala gaitz kutsakorrik. Hori bai, hiru asignatura suspenditu ditut; baina pentsatzen dut gertaera horri duen garrantzia ematen jakingo duzuela.

Ikaragarri maite zaituztet!
Zuen alaba.

Sudokuak

Erraza

7	9	3	2				4	
		4				7		1
8			7		4		2	
5	2			7				6
1	6	7	3	8	5	4	9	2
4				6			7	5
	7		1		9			3
3		1				9		
	8				7	6	1	4

Zaila

			3				5	
3		2	7					
	6	7	5					
4	9			1	7			
	7						5	
		3	9			4		8
					5	6	4	
					9	3		1
8				2				

Soluzioak

4	1	6	7	3	5	2	8	9
8	2	5	9	1	4	3	7	6
3	5	6	2	8	7	9	4	1
9	8	7	4	6	1	5	3	2
5	3	8	1	9	6	7	2	4
2	6	9	3	7	8	4	5	1
7	4	2	5	3	8	1	6	9
6	7	1	8	9	4	3	2	5
1	9	3	7	2	5	4	8	6

Erraza

Zaila

8	3	4	1	2	6	5	9	7
6	2	5	4	7	9	3	8	1
7	9	1	3	8	5	6	4	2
5	1	3	9	6	7	4	2	8
2	7	6	8	4	3	1	5	9
4	8	9	2	5	1	7	6	3
9	6	7	5	1	8	2	3	4
3	2	7	9	4	8	1	6	5
1	4	8	6	3	2	9	7	5

Ezker-eskuin: 1. Upak, Agata. 2. Marnal, II. 3. Etsa, Marbre. 4. Kanpai, An. 5. Ok, Irail, Koala. 6. Nakar, Katuskak. 7. Unamak, Sikate. 8. Orno, Uruguaitar. **Goitik behera:** 1. Umekondo. 2. Pasaka. 3. Aran, Kun. 4. Km, Piano. 5. Amara. 6. Alata, Mu. 7. Gor, Ukar. 8. Balaku. 9. Tirit. 10. Alet, Isu. 11. Kuia. 12. Oski. 13. Akat. 14. Lara. 15. Aket.



Komunikazio
biziaren
harribitxia

Oparitu  **argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da

Urte osoko harpidetza Hego Euskal Herrian 138 € | Ipar Euskal Herrian 168 € | 943 37 15 45 | harpide@argia.com

Osasuna

JABIER AGIRRE

Gripea: izuaren ala iruzurraren mende gaude?

GRIPEA URTEROKO KONTUA DA. Aspaldiko epidemiak alde batera utzita –1918ko epidemia handiak, esaterako, 50-100 milioi hildako eragin zituen–, agintari sanitarioek nahiko ondo kontrolatzen dute gaitza, eta gaur egun dauden baliabideekin eta txertaketa-kanpainekin, aparteko dramatismoa gabe joan dira azken hamarkadetakoko gripe-sasoiak. Salbuespena 2009. urtea izan zen.

Gripea hainbat motatako *Influenza* birusek eragindako gaixotasuna da. Kasu gehienetan prozesu automugatu da, ondorioz gabekoa. A birusa da gaixotasun larriena sor dezakeena, eta betidanik izurriteei lotua egon dena. Birusen osaera genetikoan gertatzen diren etengabe-ko aldaketek zepa berriak eratzen dituzte, eta noizean behin, zepa baten aurrean populazioak immunitate txikia duenean, pandemia sortzen da. Hala gertatu zen 2009an.

2009/10 denboraldiko gripe pandemiakoa Ameriketako sortutako birusak eragin zuen. Hasierako uhina udaberria eta uda bitartean iritsi zen, baina kasu gehien udazkenean eta neguan izan zen. 2009ko apiriletik azarora, H1N1 birusaren eraginez Espainiako Estatuan 100 hildako baino gehiago izan ziren arren –ez daukat Euskal Herriko zifrarik–, garai bateko izurriteekin alderatuz gero moderatutzat jo dezakegu 2009koa.

Hego Euskal Herrian, aurreneko kasua, Mexikotik etorritako pertsona bat, apirilaren 25ean detektatu zen. Hurrengo kasuak ere Ameriketatik etorritako pertsonengan gerta-



tu ziren eta pixkanaka bertakoen artean transmititzen hasi zen birusa. EAEko datuen arabera, epidemiaren gailurra urriko azken astean izan zen; hurrengo asteetan intzidentzia berriro jaitsi zen epidemia-mailatik behera.

Munduan, birusa abiadura handian zabaldu zen eta zortzi astetan 120 herrialdetara zabaldu zen. Pandemiara garaietan AH1N1-ek beste birus guztiak ordezkatu zituen, baina 2010eko abuzturako herrialde askotan beste birus batzuen agerpena deklaratu hasi ziren, normalean gertatzen den moduan. Osasunaren Munduko Erakundeak horrenbesteko espantua eragindako pandemiaren bukaera deklaratu zuen 2010eko abuztuaren 10ean.

Zergatik izan zuen gripe-epidemiak inpaktu txikiagoa Europan, munduko beste eskualde batzuetan baino? Batetik, 50 urtetik gorako populazioak bazuelako birus berriaren aurrean nolabaiteko immunitatea, azken ehun urteotan izandako beste birus batzuei esker. Bestetik, Europa azkenetakoa izan zelako lurralde industrializatuaren izurritea

jasaten; horri esker beste herrialde batzuetan izandako esperientziak baliatu eta pandemiarako prestatutako protokoloak berraztertze-ko aukera izan zuen.

Horra 2009-2010 denboraldian gertatutakoaren kontakizuna, datu ofizial eta guzti. Non geratu dira komunikabideetan zabaldu ziren alarma-dei haiek? Non daude erosi ondoren erabili gabe geratu diren txertoak? Milaka dosi eskuratu zituzten osasunerakundeek, biltegiak mukurru betetzeraino, gero ezertarako balio ez eta herrialde txiroetara bidali omen zirenak. Eta maskaratxoak? Milioika erosi ziren, adituek hasieran erakutsitako zalantzek, eta ondorioz komunikabideek barreiatutako mezu alarmistek jendea eragindako kezka baretzeko. Hemerrotekari begiratzea aski da horretaz jabetzeko, “aurreikusten zen bezain hilgarria ez den birus baten gainean sortutako gehiegizko alarma”, edo “A gripea, iruzur handia” bezalakoak irakurri ahal izan baikenituen.

Medikuoi egozten diguten korporatibismoa aparte, eta gripe-birusaren aldaketa naturalak konspirazio baten moduan azaldu nahi lituzketen teoria txatxuak alboratuta, alarma zabaltzea baino askoz ere mesedegarriagoa litzateke herritarrei informazio kontrastatua eta gardena helaraztea, eta erakundeen ahalegina benetan eraginkorrak diren baliabideetara bideratzea, neurri prebentibo gisa ezin baliagarriagoak diren txertaketa-kanpainetan bereziki.



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Simaurra egiteko makinak

HERRILANEAN SINESTEN BADUGU ingurumena zain-tzea da lehentasunetan lehena. Gure lurrari lotuta bizitzea. Geure baliabideekin bizitzea, beste inondik lapurtu eta estraperloan ekarri beharrik gabe. Horrek, batez ere, duguna ahal den ondoen baliatzea esan nahi du. Kolkoa bete diru dabilenak mundua aurrean eramaten du, baina baita etorkizuna erre ere. Azkarxeagoak eta jantziagoak diren jendarteak alderantzizkoan gailendu dira: lurrari kentzen dizkietenak erabili, berrerabili, berrerabili eta berrerabili.

Hari horretatik, Australiatik datorkigu berria. Sydney-ko Unibertsitateko Teknologikoko irakasle Dena Fam-ek egin digu proposamena: gure gernuan doazen ongariak jaso eta erabiltzea. Pixa egiten dugunean jariatzen dugun gernua esterila da eta landareek hazteko behar-beharrezko dituzten oinarritzko elikagaiak ditu, tartean nitrogenoa, potasioa eta fosforoa. Pentsatze hutsak baten bati muturra okertzerainoko nazka emango dio, baina gauza naturalenekin gero eta maizago ikusten den keinua da; gure jendarteak naturatik eta naturaletik gero eta urrunago dagoenaren seinale. Gernua berrerabiltzeko bereizi egin behar denez komun-zuloko ontzi aproposa asmatu dute, gorotzak eta gernuak bakoitza bere aldetik bideratuko dituen. Bada, Suedian, Alemanian, Txinan, Suitzan eta abarretan probetan aritu ondoren, Australian bertan jarri dute. Batik bat fosforoa berreskuratzea da helburua; urria eta mugatua da eta alderantziz-



SUSTAINABLE SANITATION-CC BY SA

ko neurrian behar dute landareek. Hau da, guk bizi nahi badugu fosforoa berreskuratzen hasi beste aukerarik ez dugu. Era berean ur gutxiago eta hobeto erabiltzen da.

Gure arbasoek beren gorotzak eta gernuak berrerabiltzen zituzten. Makina bat jende gogoan izango du baserrietako garai bateko komuna: ukuiluan zegoen simaur pilaren pare-parean goiko solairuan zegoen zuloa. Etxeko animalia guztien hondakinak simaur pila berera. Simaurtegia ondu ondoren baratza, soroa, sagastia, belazea edo dena delakoa ongarrizera.

Etorkizunari begiz begi begiratuko al diogu? Simaurra egiteko makina baino zerbait gehiago ba ote gara?



%38

Europako ibaien azterketa zabala egin du Alemaniako Leipzige ingurumenaren ikerketarako UFZ etxeak. Kutsadura hondar bila, 750.000 laginetan 500 gai organiko miatu dira. Ondorioa: substantzien %38 kaltegarria izan daitekeen neurritik gora dabil. 73 gai jarraitu beharreko izendatu dituzte, hirutik bi nekazaritza kimikoan erabiltzen diren pestizidak.

Nabarmenena diazinona, dagoenerako ez Alemanian ez Austrian erabili ezin daitekeena. Arazo latza dira, era berean, azoxistrobina fungizida eta terbutilazina herbizida. Pestizidez gain kontuan hartzekotzat aipatu dituzte dietilhexil ftalatoa, ugalkortasuna makaltzen duena eta 2015etik atzera EBn erabili ezingo dena, bisfenol A plastiko gogorretako gaia, eta analgesikoetako diklofenakoa eta ibuprofenoa.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertza 28. beheko solairua 1-2
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Nork eta nola hil zuen Moctezuma II.a?

TENOCHTITLAN, EGUNGO MEXIKO HIRIA, 1520KO EKAINAREN 29AN. Azteken enperadore Moctezuma II.a hil zen, harri batek buruan jota, beharbada, edo ezpataz nahiz geziz zaurituta, azteken edo, agian, konkistatzaileen eskutik.

Heriotzaren uneraino historiografa bat dator, gutxi gorabehera. 1519ko azaroan Hernan Cortés inperioaren hiriburura sartu zenetik, itxuraz, enperadorearen eta espainiarren arteko harremanak baketsuak izan ziren; nagusiki, Moctezumak konkistatzaileen nahi guztiei men egin zuelako. Baina Cortésekin Moctezumak gordeta zeukan altxorra aurkitu zuenean, haren asmoak aldatu egin ziren. Zerga kontuengatik sortutako lis-kar bat aitzakia hartuta, Cortésekin enperadorea bere jauregian atxilotu zuen. Beste bertsio batek dioenez, Cortés kanpoan zela, Alvarado ordezkioak 1.000 noble azteka inguru hil zituen. Aztekek altxa egin ziren, eta orduan erabaki zuten Moctezuma bahitzea.

Kontua da azteken matxinada betean enperadorea jauregiko balkoira –edo teilatura– irten zela, herritarren haserre arindu nahian. Bernal Díaz del Castillo (1496-1584) kronikagilearen arabera, Moctezuma bere kabuz irten zen herritarrei hitz egitera, eta haiek, enperadorea salduz jota, harrika eraso zioten. Harrikada horietako baten ondorioz hil



Moctezuma II.a azteken enperadorea 1520ko ekainean hil zuten, baina ez dakigu zehazki nola.

A. THEUET

zen, eta espainiarrek pena handia hartu omen zuten Moctezuma asko estimatzen zutelako (altxorra ez du aipatzen iturri honek).

Bernardino de Sahagun (1499-1590) frantziskotarrak, aldiz, espainiarren bertsioa jasotzeaz gain, iturri aztekek bildu zituen. Sahagunen kronikak espainiarren urte gosea aipatzen du. Harrikadez gain, herritar matxinatuek geziak ere jaurti zizkiotela dio. Baina Moctezumaren gorpuak ezpata zauriak zituela aipatzen du, eta horrek espainiarrak egingo lituzke errudun.

Moctezuma herritarrei hitz egitera Cortések “eskatuta” irten zela diote historialari gehienek, eta espainiarren aurka matxinatutako herritarrek hil zutela. Baina 2003an, Matthew Restall historialari estatu-


batuarrak iturri azteken bertsioaren alde egin zuen; haren hipotesiaren arabera, Moctezuma ez zuen herritar azteken erasoak hil, eta espainiarrek, matxinatuak haren hitzekin geldiarazteko ahaleginak porrot egin zuela eta handik aurrera beste ezertarako behar ez zutela ikusita, Moctezuma ezpataz hiltzea erabaki zuten.

Ziurrenik ez dugu sekula jakingo azteken enperadorea nork eta nola errematatu zuen. Dena den, nahiko garbi dago zerk kondenatu zuen enperadorea. Eta inperioa.



Arrastoak

Gizakien arteko indarkeriaren lehen arrastoa



WITWATERSRAND UNIVERSITY

TXINA HEGOALDEAN, Mabatik gertu, 200.000 urte inguruko giza garezurra aurkitu zuten 1958an. Berriki, lokian zuen kolpe aztertu dute, eta ehiza istripu baten ondorioz gertatu izana baztertu dute ia. Hipotesi nagusiaren arabera, jaurtigai batek jo zuen, eta

jaurtigaia beste hominido batek bota zion. Horrenbestez, oraindik ziurtasunik ez bada ere, orain arte aurkitutako gizakien arteko indarkeriaren arrastorik zaharrena litzateke. Horrek ez du esan nahi, jakina, lehenago indarkeriarik ez zegoenik.

Olatzagutiako errauskailua

Batzuentzat negozioa, gehienentzat langabezia

Olatzagutiako Cementos Portland Valderrivas-en hondakinak erretzeko proiektuak hautsak harrotu ditu Sakanan eta inguruetan. Zementuaren sektorea krisi gorrian dago eta langileek kezka bizi dute egoera. Testuinguru horretan, enpresak honako ekuazioa erabili du bere egitasmoaren alde: hondakinak errez CO₂ gutxiago isuriko da, lehiakorrako izango gara, eta lanpostuak mantenduko dira. Horrela al da?

URKO APAOLAZA

SAKANAN krisiak triskantza ikaragarria egin du, antzina eskualde industriala zena egun basamortu bilakatzeko bidean da: lau urtean %130 igo da langabezia. 2008ko martxoan hormigoizko prefabrikatuak egiten zituen Dinescon-ek atak itxi zituenetik, beste hamaikak segitu diote. Gamesako lantegiaren itxierak alarma guztiak piztu zituen, gero Arfe burdindegiko 157 langileak kaleratu zituzten eta orain Sunsundegiko 257 lanpostuak daude arriskuan; eskualdeko enpresarik handiena da autobusbileta. Herritarrak kezka handiz ari dira ikusten langabeziaren itzala hedatzen. Plataformak sortu dira, elkartasun ekimenak egin, erresistentzia kutxak eta elikagai bankuak bete... Enplegua mantentzea lehen-tasun bilakatu da Sakanan.

Horren guztiaren erdian, Olatzagutiako Cementos Portland Valderrivaseko (CPV) labeen soslaiari begiratzen dio askok. Mendea pasatxo duen fabrikak 152 laguni eta haien familiei ematen die jaten. Ingu-ruko harrobietatik ustiatutako kare-harriarekin klinkerra sortu eta urtean 1.300.000 tona zementu egiteko gaitasuna du. 2002an, eraikuntzaren boom betean, FCC erraldoiaren esku geratu zen Portland Valderrivas talde osoa. Baina krisiak zementugileak ere irentsi ditu: 2007an, sekto-reak goia jo zuenean, 56 milioi tona



LANDER FDEZ DE ARROYABE / ARGAZKI PRESS

Olatzagutiako lantegiak mendea pasatxo du eta inguruko handiena da.

zementu saldu ziren Espainiako Estatuan, 2012an 16 milioi tona besterik ez direla salduko aurreikusi du Oficemen Espainiako zementugileen patronalak. CPVk 7,2 milioi euroko galerak izan ditu 2011ko lehen bederatzi hilabeteetan eta negozio ildo berriari ekitea hil ala bizikoa zaio: hondakinak erretzea.

Troiako zaldia

CPVren esanetan hondakinak erretzea ezinbestekoa da petrolio kokea ordezkatzeko, CO₂ gutxiago isurtzeko eta lehiakorrago izateko. 2014 urterako erabilitako erregaiaren %30a “alternatiboa” izatea nahi du konpainiak. Inbertsio handiak egin ditu horretarako eta bere lantegien artean Olatzagutiakoa da hondakinak erretzen ez dituen bakarrenetakoa. Baina proiektua martxan da.

Errausketaren kontrako taldeen esanetan, CPV pixkanaka ari da sarea botatzen. Lehenik ingurumen txostena aurkeztu zuen eta onartu egin zion Nafarroako Gobernuak; gero txosten horren moldaketa egin zuen hondakin zehatz batzuk erretzea eskatzeko –industrian erabilitako egurrezko produktuak– eta hori ere onartu egin zuen Gobernuak. Biak daude errekurrituta. Errausketaren kontrako taldeek ez dute zalantzarik hurrengo pausoa zein izango den: zerrenda hori zabaltzea, eta azkenik, etxean sortzen dugun

Errausketaren aurkakoez ez dute zalantzarik Portlanden hurrengo pausoa zein izango den: erre beharreko hondakinen zerrenda zabaltzea

zaborra eta bestelako hondakin industrialak Olatzagutian erretzea. “Jauzi kualitatiboa lortu dugu, baina ez kuantitatiboa. Beste hondakin batzuk erretzea da gure asmoa” aitortu du CPVk. Enpresak dio ez duela jarduera aldatuko, erregaiak ordezkatu besterik ez, baina gero eta ozenago entzuten dira “ezkutuko errauskailuaren” kontrako ahotsak.

2011ko uztaillean Altsasun inoiz egin den manifestaziorik handiena burutu zen, 3.000 lagun bildu ziren CPVren errauste egitasmoaren aurka. Errausketaren kontrako mugimendua ez da Sakanara mugatu, hilabete batzuk beranduago Hiru Mugak Batera plataforma sortu zen, Sakanako, Ameskoako, Arabako Lautadako eta Gipuzkoako Goierriko taldeak biltzen ditu. Abenduaren 7an Lizarran ehunka lagun bildu ziren proiektuari berriz ezetz esateko eta eskualde horietako udal gehienek gaitzespena ere jaso du errauskailuak. Alderdi politikoak, nekazariak, auzo elkarteak, turismo erakundeak, partzuergoak... ugari dira protesta egin dutenak. Bestetik, Sakanako Mankomunitatea hondakinak atez ate biltzeko bideragarritasun plana egiten ari da, birziklapena %80ra igotzeko. Datu horiekin CPVk erretzeko materialik ez luke izango kasik.

Osasuna da gehien larritzen duen alderdietako bat. CPVk dio bere labeetan 1.500-2.000°C-tara erreko direla hondakinak eta bero horrekin ez dela dioxinarik sortzen. Temperatura hori baina, erregai homogeneoa erabiliz eta klinkerizazioa modu orekatuan eginez baino ezin liteke jaso; askorentzat zaila da sinestea ibilgailu zatiekin eta haragi puskekin halakorik lortuko denik. Areago, aurreerrauskailuko galdararik pasatzean 800°C-tara jaisten da beroa eta ebakuazio hodian 300°C besterik ez da izaten. Hiru Mugak Baterak-ek

dokumentala kaleratu du hondakinak erretzearen kontrako argudioak azalduz; temperatura horiekin gaixotasunak izateko aukera eta hilkortasun tasa handitzen dela diote bertan hainbat adituk.

Lemoan ez eta Olatzagutian bai?

Fabrikan lanean ari direnen artean gehienak olatzagutiarrak dira. CPVk Olatzagutiako Udaren aurrekontuaren %25a ordaintzen du zergetan. Eskualdeko ekonomian eragiteko gaitasun itzela du enpresak, eta badaki. Jose Antonio García CPVko Olatzagutiako plantako zuzendariak nabarmendu du “bailararako enpleguaz eta aberastasunaz” hitz egiten ari direla. Momentu honetan lantegiko bi labeetako bat geldirik dago eskari faltagatik eta enpresak barne berregituraketak egin ditu, azpi-kontratazioak bertoko pertsonalarekin ordezkatzeko; langileek arduraz bizi dute egoera. Enpresa komitean nagusi den UGT sindikatua hondakinak erretzearen defendatzaile porrokatua bihurtu da: “Gure etorkizuna ezinbestean [hondakinak] balorizatzean eta inbertsioetan datza”. Lehiakortasunak lanpostuak mantentzea ekarriko omen du.

Ekuazio hori ez da hain sinplea ordea. Espainiako Lehiakortasunerako Batzorde Nazionalak 11 milioi euroko isuna ezarri die hainbat enpresa zementugileri Nafarroan eta inguruko lurraldeetan kartel bat osatzeagatik, tartean CPV dago (5,6 milioi euro). Telefono deien entzuketetan eta erregistroetan lortutako informaziotik ondorioztatu dute enpresa horietako ordezkariak CPVren Nafarroako egoitzan bildu zirela hormigoiairen prezioaren igotza paktatzeko eta merkatua banatzeko. Sektoreak oso merkatu zurruna dauka, produktua garraiatzeak kostu handia baitu eta esportazioak ez dira normalean errentagarri izaten, automobilgintzako edo makina erremintako sektoreetan ez bezala –CPVk 2010ean ekoiztutako zementuaren %11 baino ez zuen esportatu–. Horrek zementu industriako enpresen arteko lehia gutxitu eta monopoliorako joera handitzen du. Benetan al da lehiakortasun falta Olatzagutiako fabrikaren ara-





Sinadurak biltzen, Cementos Portland-en errauste proiektuaren kontra. Herritarren oposizioa hainbat eskualdetara hedatu da.

zoa? Galdera horri erantzuteko ez da oso urrutira joan beharrik.

CVPk Lemoan duen lantegian aspalditik ari dira hondakinak erretzen, aitzindaria izan zen horretan. Besteak beste, urtean 50.000 tona pneumatiko erretzen dituzte FCC taldeko ere baden Neuciclaje enpresak hornituta. Egun Lemoan erabiltzen den erregaiaren %30 inguru hondakinak dira, hau da, CPV 2014rako zuen helburua jada bete du Bizkaiko filialak. Hondakinak erretzeak, ordea, ez ditu langileak enpresaren irabazi asmoetatik babestu. Duela hiru aste Enplegu Erregulazio Espediente bat aurkeztu zuen Cementos Lemonak 123 langileentzat, zementuaren produkzioa azken urteetan %40 jaitsi dela dio zuzendaritzak.

Lemoako kasuak argi erakusten du lanpostuak zementu produkzioari loturik daudela, ez hondakinak erretzeko egitasmoari. Greenpeaceen arabera, 100.000 tona hondakin erretzeko 25 pertsona nahikoa dira. Bilboko Zabalgarbiko errauskailuan 45 lagun daude 225.000 tona hondakin erretzeko; Nafarroa osoan ez da hainbeste hondakin sortzen. Zenbat esku beharko dira Olatzagutiako plantan?

Portlandek begi bakarretik negar

CPV 2014rako zuen helburua jada bete du Bizkaiko filialak. Hondakinak erretzeko, ordea, ez ditu langileak enpresaren irabazi asmoetatik babestu. Duela hiru aste Enplegu Erregulazio Espediente bat aurkeztu zuen Cementos Lemonak 123 langileentzat, zementuaren produkzioa azken urteetan %40 jaitsi dela dio zuzendaritzak.

petrolio kokea hondakinekin ordezkatzuz dirua aurreztuko du, azkenean hauek merkeago direlako. Baina hondakinen berotze ahalmena ez da petrolioaren erdira iristen, beraz, tona kopuru bikoitza beharko du. Non dago orduan aurrezpena? Zaborrak bildu eta tratatzeaz talde bereko FCC arduratzen da nagusiki eta mankomunitateek eta enpresek zerbitzu horrengatik ordaintzen dute. CPV 2014rako zuen helburua jada bete du Bizkaiko filialak. Hondakinak erretzeko, ordea, ez ditu langileak enpresaren irabazi asmoetatik babestu. Duela hiru aste Enplegu Erregulazio Espediente bat aurkeztu zuen Cementos Lemonak 123 langileentzat, zementuaren produkzioa azken urteetan %40 jaitsi dela dio zuzendaritzak.

Bestetik, dioxido karbonoaren merkatuan ere mokadutxoak jan dezake CPV 2014rako zuen helburua jada bete du Bizkaiko filialak. Hondakinak erretzeko, ordea, ez ditu langileak enpresaren irabazi asmoetatik babestu. Duela hiru aste Enplegu Erregulazio Espediente bat aurkeztu zuen Cementos Lemonak 123 langileentzat, zementuaren produkzioa azken urteetan %40 jaitsi dela dio zuzendaritzak.

Cementos Lemoa-ko kasuak argi erakusten du lanpostuak porlan produkzioari loturik daudela, ez hondakinak erretzeko egitasmoari

Aracama eta Elorrieta: bi sugandil Portlanden

Nafarroako Gobernuak irmoki babesten du errauste proiektua, besteak beste, lotura handiak eta interes berak dituelako zementugilearekin eta bere zuzendariekin.

Jose Mari Aracamak, esaterako, joan etorriko bidaia egin du Portlandera. Hogei urtez Olatzagutiako plantako finantza zuzendari aritu ondoren, Nafarroako Gobernuko Ekonomia sailburu izendatu zuten 1996an. Orain ate handitik itzuli da, presidentearen alboko kargua hartuta.

Jose Ignacio Elorrietak ere badu loturarik erakunde publikoekin. Egun Portlandeko Ingurumeneko zuzendari nagusi denak, Nafarroako Gobernuko Osasun eta Ingurumen sailtarako lan egin zuen. ISR fundazioko bazkide ere bada Elorrieta, eta errausketa aurreikusten duen Nafarroako hondakinen planaren idazleetakoa bat da. Eta hara, Olatzagutian hondakinak erre behar dituzte.

tzeko –2013an muga hori 640.000 ingurura jaitsi liteke—. Baina egun, labe bakarra martxan duela, 300.000 tona inguru aurrezten ditu urtean. Are gehiago aurreztuko du hondakinekin, erregai horrek ez omen baitu CO₂rik isurtzen Europako araudien arabera. Aurreztutako tonak, jakina, merkatuan saldu ditzake berriz.

Diru parrasta hori guztia ia izerdirik bota gabe eskura dezake CPV 2014rako zuen helburua jada bete du Bizkaiko filialak. Hondakinak erretzeko, ordea, ez ditu langileak enpresaren irabazi asmoetatik babestu. Duela hiru aste Enplegu Erregulazio Espediente bat aurkeztu zuen Cementos Lemonak 123 langileentzat, zementuaren produkzioa azken urteetan %40 jaitsi dela dio zuzendaritzak.



Enpresak sare sozialetan

Nola erabiliko ditut hizkuntzak sarean?

Enpresek komunikazio kanal bihurtu dituzte sare sozialak. Bezeroengana hurbiltzeko eta haiek ezagutzeko tresna baliagarriak dira. Baina zein hizkuntza erabiltzen dute? Estrategia linguistikorik badarabilte? Eztabaida on-line jarrai daiteke.

SAIOA LABAKA

FACEBOOK, Twitter, Tuenti, Google+... dira egungo sare sozial eza-gunenak. Enpresek horietan zein hizkuntza erabili gomendatzeko, ikerketa proiektua jarri du abian Emunek. Hemendik gutxira edozein enpresaren kezka izango dela-koan daude. Enpresa pribatuek sarean izan beharko lituzketen hizkuntza irizpideen inguruko hausnarketa egitea da ikerketaren helburua. Horretarako, sarean adituak eta arituak direnen iritzia bildu dituzte. Bestalde, hainbat enpresa pribaturen esperientziak ere jaso dituzte.

Administrazio publikoko erakunde eta langileentzako hizkuntza irizpideen jarraibideak zehaztuta daude, Jaurilaritzak *Eusko Jaurilaritzaren gizarte-sareetako erabileren eta estiloaren gida* plazaratu baitzuen. Enpresa pribatuei begira, hutsunea dagoela ikusirik, lanean ari dira Emunekoak. Nola jokatzen dute bada enpresa pribatuek? Enpresa bakoitzaren ezaugarriak baldintzatuko dute erantzuna: hizkuntza-politikaren nondik norakoak, bezero motak, merkatuak, baliabideak...

Sarean, *www.lantalan.com* helbidetan daude hausnarketa honi buruz idatzitako artikuluguztiak, eta baita zenbait enpresaren azalpenak ere. Twitter bidez ere egin daiteke eztabaidaren segimendua: *#sarekohizkuntzak* etiketarekin. Jarraian dituzue aukeratu ditugun artikulubatzen laburpen-laginak, hausnar-



Ternua enpresak euskara, gaztelania eta ingelesa erabiltzen ditu sare sozialetan. Facebooken (argazkian) eta Twitterren hiru eleko kanal bakarra erabiltzen dute.

ketaren nondik norakoak ikus ditza-zuen.

Kontu bakarra ala bi kontu?

Joxe Rojasen artikulua izan zen hausnarketaren abiapuntua: *Gure erakundea edo enpresa sare sozialetan badago, zenbat kontu erabili? Bakarra bi hizkuntzatan? Bat hizkuntza bakoitzeko?* Oihartzuna izan zuen artikulua sarean eta ekarpen interesgarriak jaso zituen. Hemen duzue gaiaren nolabaiteko laburpena.

Abiaburu gisa, honako hau aipatzen da artikuluan: hizkuntza iriz-

pideak zehaztuta dituen enpresak—hizkuntza lehentasuna, laneko hizkuntza, kanpo komunikazioa...— sare sozialetan ere ildo berari eutsi behar diola, sare sozialak komunikaziorako beste kanal batzuk dira eta.

Enpresak sare sozialetan nolako jarraitzaileak nahi dituen aztertu beharra ere aipatzen da artikuluan, enpresaren hizkuntza aukerak berak irudi bat sortzen baitu jarraitzaileen artean. Enpresak erabakiko du mezuak erdara hutsean idatzi, elebitan edota euskaraz baino ez. Irizpi-

Ternua enpresaren esperientzia

Ternuak (kirol arropa enpresa) hiru hizkuntza erabiltzen ditu sare sozialetan: euskara, gaztelania eta ingelesa. Juan Luis Azkarate Ternuako community managerrak sareko hausnarketan azaldu zuen enpresaren hizkuntza kudeaketa. Sare sozialak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez elikatu eta kudeatzen dituzte. Kanal hirueledun bakarrak erabiltzen dituzte, Facebook eta Twitterren, batez ere. Alde batetik, logistikaren ikuspegitik, hizkuntza bakoitzeko kanal bat izateak denbora eta lan gehiago dakarrela aipatzen dute. Bestetik, Ternua markaren inguruan sortutako komunitatea bakarra izanik, garrantzitsua iruditzen zaie haien arteko harremanak mantentzea. Hau da, ez dute marka-komunita-

tea zatikatu nahi hizkuntzagatik. Azkenik, azaldu zuten nazioartekotasunak indar handia ematen diola markari, enpresak mundu osoan saltzen baitu, eta sareak mugen gainetiko nazioartekotasun horri ikusgarritasuna ematen laguntzen diela.

Ez dituzte mezu guztiak hiru hizkuntzetan sareatzen, baina hiru hizkuntzak asko agertzen dira. Twitterren ez dituzte hizkuntzak nahastu, Facebooken batzuetan bai, ordea. Mezu laburrak idazten dituztenean bi edo hiru hizkuntza nahastu dituzte mezu berean, sarrera gehiegi ez errepikatzearen. Testu luzeak idazten dituztenean, aldiz, gehienetan Facebookeko sarrera bakoitza dagokion hizkuntzan jotzen da.

de orokor gisa, ahal den guztietan euskara baino ez erabiltzearen aldeko apustua egiten du Rojasek.

Enpresaren xede-taldean erdal-dunek pisu handia dutenean, sare sozialetan nola joka daitekeen ere proposatzen du egileak. Komunikazioaren ikuspegitik, hizkuntza bakoitzak bere kontua izatea logikoa dela aipatzen du, eta bi galdera egiten ditu: zertarako 'zikindu' jarraitzaile ez-euskaldunaren pantaila ulertuko ez dituen kontuekin? Zertarako bidali euskaldunari mezuak bi hizkuntzatan errepikatu-ta? Planteamendu horri euskararekiko konpromisoaren aldagaia txertatuz gero, sare sozialetan jardun oso zabala ez duten enpresetan, euskara eta gaztelania kontu bakar batean uztartzeak ikusgarritasuna ematen diola euskarari aipatu du Rojasek. Hartara, erdal-dunek enpresa euskaraz ere mugitzen ikusiko lukete, eta enpresa ondo ezagu-

tzen ez duten bezero euskaldunek euskaldun gisa identifika dezakete enpresa. Informazio asko sortzen duten enpresentzat, mezuak bikoiztea kaltegarria izango litzatekeela aipatzen du egileak, eta horrelakoe-tan hizkuntzak banatzea lagungarria gerta daitekeela.

Oro har, kontu bakarraren alde egiten du Joxe Rojasek, egingarria eta arrazoizkoa den kasu guztietan. Kontu bakar horretan, mezuak lehendabizi euskaraz sartuko lituzke, eta euskarazkoak eta gaztelaniazkoak mezu banatan, ez biak mezu berean sartuta.

Artikulu horretan Joseba Kamiok bere blogean idatzitako artikulu baten aipamena ere egiten da. *Komunikazio korporatiboaren Hizkuntza Politika* izenburupean bere proposamena egiten du egileak. Sare sozialei dagokienez, oro har, hizkuntza bakoitzak bere kanala beharko lukeela aipatzen du. Ekar-

Emunen asmoak

Emun enpresak, sare sozialei buruz Interneten egin diren hausnarketak bilduko ditu. Bestalde, haren asmoa da, enpresaren batek sarerako hizkuntza irizpideak ezarri nahi baditu, hori egiteko metodologia prestatzea. Apirilera enpresentzako gomendioen gida osatuko du.

pen gehiago ere idatzi dira artikulu honen harira, eta era askotako irizkiak daude. Erantzun errazeko galdera ez dela, argi dago.

Hizkuntza formala ala lagunartekoa?

Josu Bergara Burutü komunikazio eta publizitate agentziako kideak enpresek sare sozialetan hizkuntza formala edo lagunartekoa erabiltzearen inguruko gogoeta egin zuen *Nolako marka, balako hizkuntza erabiler*a artikuluan. Galderari erantzunez, hizkuntza erabilera enpresa bakoitzaren publikoaren arabera izango dela adierazten da. Lehenik, bezeroa bera ondo aztertu eta eza-gutu behar du enpresak: geografikoki non dagoen, adina, sexua... Era berean, komunikatzeko erabiltzen diren bide guztien koherentzia eta helburu bateratua argi izatea ezinbestekotzat jotzen da: nola hitz egin eta norentzat hitz egin. Sare sozialak norentzat bideratuta dauden zehaztuta, enpresak erabakiko du bezeroarekiko harreman urruna mantendu ala gertutasuna adierazi; hizkuntza formala ala informala erabiliz. Eta euskaraz aritzerakoan, euskara batuan ala euskalkian idatzi behar da? Euskalkia aukeratuz gero, etxeko hizkeran ala formalago? Zer egin hartzaile mota asko dituen enpresan? ■



Babeslea: Erreterriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@erreteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA


Miguel Zabaleta 14, 20100 Erreterria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@erreteria.net

'Hedabideak', Garabideren azken argitalpena

HEDABIDEEK hizkuntzak berreskuratzerakoan izan dezaketen eragina eta garrantzia aztertu du Garabide elkarteak *Hedabideak* liburuaren eta DVDaren bidez. *Euskararen Berreskuratzea* bildumako 3. zenbakia da, eta Alberto Barandiaran kazetariak koordinatu du.

Liburuko kolaboratzaileak honakoak izan

dira: Lorea Agirre, Miren Artetxe, Andoni Barreña, Elixabete Garmendia, Iñigo Iñurrategi, Urko Kolomo, Jon Sarasua, Aitor Zuberogoitia eta ARGIAko zuzendari Xabier Letona. DVDan jasota dagoen dokumentala ARGIAk ekoitzi du, eta Maialen Sarasua arduratu da produkzio lanaz.



Liburuak sei atal nagusi ditu: Jon Sarasuaren hitzaurrea; sarrera; Euskal prentsaren historia txikia eta Euskal ikus-entzunezkoak eta Internet

izeneko kapituluak; gaur egungo euskal komunikabideen gida; eta Sintesia.

Euskararen Berreskuratzea bildumako aurreko bi lanak ondokoak dira: *Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk* (sintesi orokorra) eta *Hizkuntzen estandarizazioa. Euskararen berreskuratzea II* (lehen ale monografikoa).

Euskarabidea: laguntzak %46 behera

BILDUK joan den azaroan eskatua zion Euskarabideari 2012rako zeukan aurrekontua azaltzeko Nafarroako Parlamentuan. Joan den astean egin zuen Maximino Gómez zuzendariak agerraldia, kazetaririk ez zela egindako agerraldia, ez baitzuen halako baimenik eman. Gómezek adierazi zuenez, euskara sustatzeko laguntzak %46 murriztu dira aurrean eta barne funtzionamenduan %14. Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbao-ren ustez, Euskarabidea dirua xahutzeko makina da, lau eurotik hiru egitura mantentzen gastatzen duela eta euro bat baino ez dielako ematen euskalgintzako eragileei. Euskarabidearen urteko aurrekontua 2,3 milioi eurokoa da. Bilduko ordezkari Aitziber Sarasolak hedabideak dirulaguntzarik gabe gelditu izanaz galdeztu zion eta Gómezek erantzun zuen herritarrek Internet darabiltela eta laguntzak horra bideratu behar direla.

'Hitza' "ez da informazio orokorreko agerkaria"

FRANTZIAKO prentsa agentziak eta argitalpenak kudeatzen dituen batzordeak ez dio onartu informazio orokorra eta politikoa lantzen duen izaera *Ipar Euskal Herriko Hitzari*. Bere argudioen arabera, ezin du edozeinek irakurri *Hitza* euskarri digitalean; euskaraz delako. *La Setmana* eta *Kazeta.infori* buruz emandako argudio berak erabili ditu dirulaguntzak murrizteko. Papereko argitalpenari buruz gauza bera ebatzi du batzordeak eta dirulaguntza %20 murriztuko zaio horregatik.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Amiantoak Euskal Herrian ere hiltzen du

Amiantoak, enpresa ugarian erabili den mineral minbizi-sortzaileak, ez du soilik Italian hiltzen, non epai eredugarria izan den arduradunen kontra. Amiantoak Euskal Herriko enpresetan ere hiltzen du. Ehunka langile hilko dira bere garaian mineral horrekin kontaktuan egoteagatik. Aurrean, jadanik hiru lagun hil dira. Azkenekoa duela bi aste, Jose Ignacio Gonzalez, Amurrioko Tubos Reunidos-en aritu zen 54 urteko langilea. 2008tik gaur arte 71 lagun hil dira Euskal Herrian mineral horrek sortutako minbiziaz.

Hilketa horien kontrako jardun judiziala ez da berdina, ordea, Euskal Herrian eta Italian. Fiskalek eta epaileek oso kontuan eduki beharko lukete Italian izan den epaia. Eta amiantoak kaltetutako Euskal Herriko familiek, hala nola Amiantoak Eragindako Biktimen Elkarteak (ASVIA-ME), egoera hori aprobeztatu behar lukete salatzen jarraitzeko eta arduradunak tribunaletara eramateko, ardura penalak eta zibilak garbitu ditzaten. Tingo epaimahaiak 16 urteko kartzela zigorrera kondenatu ditu Eternit enpresaren buruak, Italian amiantoak zementua sortu zuen multinazionala. Bere arduradunek hondamendia sortu zuten ingurumenarentzat eta ez zituzten lan segurtasun baldintzak bete. Jokabide horrek 2.300 lagun heriotza ekarri zuen epaimahaiaren arabera eta 665 gaixotu ziren. Kondenatuak sententzia ez betetzen saiatu dira 18 milioi euroko indemnizazioa ordainduz, baina kaltetuek uko egin diote dirutza horri. Irakasgai ederra: epaileena, amiantoaren arduradunak kondenatzeagatik, eta kaltetuena, kartzela zigorra saihesteko eskaintako indemnizazioak ez onartzeagatik.

Juan Mari Arregi



Ekonomia soziala, ezkutuko alternatiba hori

ENPRESARIAK pozarren dira PPren lan erreformarekin, orain arte eskuak lotuta izan dituzte eta aurrerantzean libre aritu ahal izango dira enpresan arazoak direnean. Eduardo Zubiaurre Adegiko lehendakariak argi azaldu du *Berria*-n eskaini berri duen elkarrizketan: "Horretarako, lan erreformak eman dizkigun tresnak behar ditugu. Aldaketak gertatuz gero, erabakiak eta neurriak hartzeko, azkar, merke eta administrazioaren baimenik gabe". Egungo egoerarekin eskuak lotuta ei zituzten enpresariak eta lan harremana langileen aldera desorekatua zegoen. Orain orekatu dira, eta funtsean langileen kaleratze azkar eta merkeaz ari da Zubiaurre. Eta horrek enplegua sortuko ei du.

Kontua da inork gutxik uste duela honek lanpostuak sortuko dituenik, ezta PPK berak ere, behintzat aurtengoan. Ekonomialarien artean, ordea, are eta gutxiagok uste du halakorik, ekonomia aktibatu barik ez delako ekonomia hazkunderik izango eta hau gabe lanpostuak sortzea ezinezkoa delako, ezta halako hamar erreformarekin ere. Hori PPko buruzagiek ere ondo dakite, baina lan harremanen berregokitze hau bat dator merkatuak deitutako horiek nazioarte mailan azken hamarkadatan eskatzen ari diren lan malgutasunarekin. Espainiako sindikatuak ezin esango dute PPK iruzurrik egin duenik edo halakorik espero ez zenik, PSOEk bidea leundu ondoren, betiko eskuinak aspaldi amesten zuena gauzatu du.

Kontua da Euskal Herrian martxoaren 29an greba orokorrarekin erantzungo zaiola lan erreformari ELA, LAB eta gehiengo sindikala-



KOSKA IRRATIA

ren beste lau sindikatuk deituta. Eta ezusteko asko ez bada bederen, azken bizpahiru urtetan izandako greba orokorren gisakoa izango dela iragar liteke. Bakoitzak bere armak ditu, eta langileek eurenak erakusten dituzte, modu zatikatuan bada ere. CCOO-k eta UGT-k ere balorazio baikorra egin dute beraiek iragan aste buruan egindako manifestazioez, eta greba orokorraren atea itxi gabe dagoela azpimarratu dute.

Ezagun dira bi bloke sindikal nagusiek dituzten desberdintasun sakonak: aldarrikatzen diren lan eta ekonomia esparruak desberdinak dira eta baita eredu sindikala ere. Egoera ekonomiko larriak eta neoliberalismoaren bultzada gupidagabeak, alabaina, elkarrekin hitz egin eta elkarrekin jardutera ere bultzatu beharko litzuke, zenbaitzuetan bederen. Gaitza da, baina saiatu beharko lukete, Euskal Herrian behinik-behin emaitza oso bestelakoa litzateke, hori seguru. Tamalez, izango da denborarik horretarako? Eta borondaterik?

Erantzutea eta protesta garrantzitsuak dira beti, gizarte baten etorkizuna parlamentuko erabakietan bakarrik ezin dela utzi erakusten dute, klase borroka ez zela agortu ongizate estatuaren garape-

narekin, eta historia ez dela amaitu, Fukuyamak Berlin-go Harresiaren erorketarekin iragarri zuen gisan.

BAINA ORDUA DA, halaber, langileek ekonomia harremanen egungo ereduak sakondu dezaten eta beste alternatiba batzuetan ere araka dezaten: langilea produkzio prozesuen jabe egitearen lelo zahar haren gaurkotutako formulatan

arakatzea, alegia. Eta horri, gaur egungo European ekonomia soziala deitzen zaio. Euskal Herriak bide oparoa du ekonomia sozialaren esparruan, batez ere bere esperientzia kooperatibo aberatsak hedatu duena, baina ekonomia eredu hau jorratzeko beste zenbait molde ere badira gaur egun, haien artean Lan Elkarte Anonimoak edo GKEak esate baterako.

Paradisurik ez da oraindik eza gutzen mundu honetan, baina ekonomia sozialaren abantailak era guztietakoak dira, bai lan harremanari dagokionez bai krisi egoerei bestelako erantzuna emateko. Jabegoaren banaketa, parte hartzea, elkertasuna, errespetua, enpresa burujabetza, lan demokrazia handiagoa... ekonomia sozialean lur zoru egokiagoa duten balore funtsezkoak dira. Eraginkortasun kontuak albora utzita, zein errespetu eta duintasun dago lan harremanetako subjektuetako batek —enpresariak— "kalera!" esaten duenean eta beste aldeak —langileak— kalera ateratzea besterik ez duenean? Ba horixe, kalera ateratzea, izan martxoaren 29an edo izan dagokion bestelako edozein egunetan.



Nestlék Suitzako altermundialistak espiatu zituenekoa

Orain arte ez da jakin urtarrilaren 24an Suitzako Lausanne hirian Nestléren aginduz Attac erakundeko militanteak espiatu zituztenen kontrako epairik. Baina frogatuta dago 2003 eta 2008 artean Securitas segurtasun konpainiak bi sator infiltratu zituela erakundean, justu hauek *Attac contre l'empire Nestlé* liburua prestatzen ari zirenean.

NESTLÉ KONPAINIAK TXORIA HABIAN bere kumeei jaten ematen erakusten du logoan. Irudi idilikoa mundu guztiak ezagutzen dio. Baina Suitzako Leman aintzira bazterreko Vevey hirian egoitza nagusia duen Nestlék arrautzak mundu osoan dauzka banatuta, ez alferrik da planetako konpainiarik handiena elikagaien alorrean.

Munduko 86 herrialdetan 280.000 langile enplegatzen ditu, 6.000 marka baino gehiagoko produktuak ekoiztu eta saltzen, izan kafe, gozoki, esneki, txokolate, zereal, izozki, salda, haurrentzako janari, ur botilaratu edo animalientzako bazka. Inperioaren salmentak ondo koipetutako marketinak primeran mugiarazten dizkion arren –Nespresso markarekin munduko jende *cool* guztien artean hedatu duen fenomenoari erreparatu besterik ez dago– Attac bezalako erakunde txiki bat infiltratu eta espiatu beharrean aurkitu da, non eta Suitzan bertan.

Globalizazio neoliberalak salatzen duten erakundeen artean klasikoeetakoa den Attac –*Association pour la Taxation des Transactions financières et pour l'Action Citoyenne*– erakundearen Suitzako taldeetako bat 2003. urtean Nestléri buruzko ikerlana ari zen prestatzen, gero *Attac contre l'empire Nestlé* liburuan mamituko

zena. Vaud kantonamenduko batzordean biltzen ziren militanteek ez zioten susmo txarrik hartu taldean sartu zitzaizen Sara Meylan gazteari.

Nestlégate deitu izan zaiona 2008an lehertarazi zuen Suitza frantses-hiztuneko *Télé Suisse Romande* kate publikoak. Horrela jakin zuten Attacekoek Nestlé multinazionalaren aginduz Securitas enpresak –multinazionala hau ere, 260.000 langile munduan barrena, nork ez ditu ezagutzen haren logoko hiru puntu gorriak...– ez bat baizik eta bi sator infiltratu zizkiela.

Estreina bere burua Sarah Meylan izen faltsuz aurkezten zuenak 2003tik 2004ra artean zelatatu zituen, eta horren lekuan 2005ean Securitasen arduradunek Shinta Juilland izeneko bigarrena sartu zieten, 2008a arte Attaceko kide jarraitu zuena.

2008an afera telebistak haizatu zuenean, Attacek auzitara eramanez Sarah Meylan, Nestlé eta Securitas, baina deusetan geratu zen: Lausanneko Jacques Antenen epaileak 2009an ebatzi zuen espioitza delituek hiru urteko biziraupena dutela, zigorrak gabe utziz.

2012ko urtarrilean kontua Suitzako eta Frantziako hedabideetan –guretaraino ez da heldu– berriro baldin bada izan da Attaceko hamar

Erakundeak berak Interneten daukan argazkian Suitzako Attaceko militanteak Nestlé multinazionalaren kontra ageri dira protestan, Nespresso kafe formula –hain arrakasta handiz George Clooneyk publizitatzen duena– iragartzen duen komertzioaren atarian. Beren ahoak esparatrapuz itxirik, minutu bateko isiltasuna eskatzen dute Nestléren politikaren biktimen oroimenez. *24 Heures* egunkariaren argazki txikian ikusten da erreportajea aipatu Sarah Meylan, Lausanneko epaitegitik ateratzen, ohikoa duen iruditik urruntzeko mozorroturik. Izen faltsu horrekin Securitas segurtasun enpresak infiltraturik barrandari lanetan aritu zen Attaceko talde batean, hain zuzen Nestléren negozioak larrutzen zituen liburua prestatzen ari zirenean. Attaceko suitzarrak kezkatuta daude bigarren satorren informazioek arriskuan jarri dituztelako atzerriko militante askoren biziak.

kidek auzi zibilean Securitas enpresari 22.000 euro inguruko kalteordainak eskatu dizkiotelako. Horrek behartu ditu aurpegia ematera hiru satorretako bat eta Nestlé eta Securitasen arduradunak.

Auzitegian Sarah Meyland deitua itxura bitxiz azaldu zen, *punky* moduan batzuen ustez, Millenium filmeko Lisbeth Salanderren planetak eginez. Bi urtez berarekin ordu asko emandako militanteek oso bestelako itxura batekin ezagutua zuten.

Balizko Shinta Juilland, bigarren espioia, ez zen azaldu argudiatuz hedabideek *lintxatu* egin nahi zutela. Honen nagusi Fanny Decreuze ere ez zen agertu. Baina azaldu zirenek bai kontatu zituzten edozein herri-tar kezkatuta uzteko modukoak.

Konfiantzatik paranoiara

2003an hasi zen kontua, *Le Monde* egunkariak laburbildu duenez. Securitas konpainian Ikerketa sailaren burua zen jendarme ohi batek, S.J. hizkiz izendatua denak, Vaud eskualdeko Attaceko militanteen jarduerak zelatatzeke enkargua jaso zuen, Nestlék berak eskaturik.

Hark infiltratu zuen Sarah Meylan, zeinak bi urtetan 30 txosten pasatu baitzizkion, *confidentiel* moduan sailkatuak. Txostenak iritsi zitzaizkion garai hartan Nestléren



komunikazio arduraduna zen Marcel Rubineri. Honek auziaren instrukzio fasean aitortu zuen *satorrarekin* bildu zela eta Attac prestatzen ari zen liburuaren atal osoak irakurri ahal izan zituela.

Nestléren bozeramaile zen François-Xavier Perroudek ere bazuen gauzon berri, Sarah Meylaren txostenak eskuratu zituen. Aitzakia moduan epaileari esan zion Attaceko jendearekiko jakin-mina piztu zitzailela 2003an José Bove eta bere kide batzuek Veveyen Nestlék duen egoitzari eraso ziotenean.

Epailearen aginduz ikerketa fasean poliziak Securitas enpresa miatu zuenean, ordenagailu batean aurkitu zituen horietako txosten *confidentiel* batzuk, tartean Franklin

Frederick ekintzaile brasildarrari egindako jarraipena, Europatik salatzen zebilenean Nestlé Brasilgo iturriak kontrolatu nahi dituela.

Urtarrileko auzian, Susan George idazle eta militante ezaguna zen kalteordainak eskatu dituztenetako bat. “Nire gune pertsonala eta profesionala inbaditze horrek sakonki astindu nau”, adierazi du epaitegi atarian. “Benetako beldurra sentitzen duzu ohartutakoan konfiantza eman diozun pertsona batek traizionatu zaituela”, esan du *Attac contre l’empire Nestlé* liburuaren hitzazurra idatzi duenak.

Attaceko beste kide batek, O.E. hizkiz identifikatuak, *La Libre Belgique* egunkariko kazetariari hau azaldu dio: “Nestléren lehen garaipena izan

da erakundea desantolatzea. Batzuk paranoian erori dira, beste batzuei zalantza handiak sortu zaizkie beren militantziaz. Baina gero denok sendotu gaitu gure asmoetan: zelatatzen baldin bagaituzte seinale da ezkutatze zerbait daukatela.

Zorte gutxiago izan dute Attacekoekin elkarlanean ari ziren Kolonbiako eta Filipinetako beste militante batzuek. “2005ean Nestlék Kolonbian daraman jokabidea aztertze bilerak antolatu zuen MultiWatch erakundeak Bernan; lekukotza azaldu behar zuten sindikalistetako batzuk, ordea, gurekin ari zirenak, etorri baino aste batzuk lehenago asasinatu egin zituzten”.

Kazetariak Nestléko zuzendaritzari galdetu dio gertakizun haietaz, eta multinazionalak gezurrak direla arrapostu. “Nestlék bi herrialde haietan bere langileen kontra bortizkeriarik edo heriotza mehatxurik usatu duenaz inolako frogarik ez da sekula erakutsi”, moztu du Nina Caren Backes bozeramaileak, gehituz Alliance Sud bezalako erakundeek aitortu dituztela Kolonbian Nestlék lan baldintzak hobetzeko egin dituen ahaleginak.

Nestlégateaz albiste gehiago ez da azaldu urtarritetik, Lausanneko epaileek ez dute ebazpenik argitaratu oraino. Baina aspalditik daukate inguru hartako Attaceko militanteek ikasbidea harturik, O.E.k kazetariari esan bezala: “Gaur egun badakigu hain talde indartsu baten kontra ari garenean ez dugula izenik aipatu behar, gezurrezko izenekin jardun behar dugula”. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Bixente Serrano Izko

Elkar ikusezinak

Buruan bueltaka nenbilela euskarazko saiakeraren genero literarioan usu den gabezia batez, hara non Anjel Lertxundik *Berriako* bere txokoan *Inexistentzia* izenburuko zutabea eskaini zigun otsailaren 8an: “Txillidari, Oteizari edo iniziatiba plastiko esanguratsuenei buruzko hemengo lan akademiko gehienek ez dute aintzat hartzen euskaraz idatzitakoa”. “Balirudike euskaraz ez dakiela deus euskal arteaz”. Erdarazko saiakereaz ari da, mingots eta arrazoiz.

Berehala iruditu zitzaidan zeharka izanik ere bazuela ideia horrek loturarik buruan zebilkidan bertze harekin: alegia, zein gutxitan aipatzen dioten elkarri euskarazko gure saiakeragileek, bai behintzat hizkuntzalaritza edo literaturgintza aztergai hartzen ez duten gainerakoetan: antropologia, etika, filosofia, etnologia, filosofia politiko, ingurumena, globalizazioa, ekonomia... hainbat eta hainbat arlotan. Urria da, oraingoz, saiakeren produkzioa euskaraz arlo unibertsal horietan, gure hizkuntzaren egoera diglosikoaren isla. Baina beren urrian, badugu saiakeragile ugari arlo frankotan. Bada, deigarri suertatzen zait bertze pentsalari edo idazleen mintzoak nork bere harira ekartzerakoan, erruz agertzen direla bertze hizkuntzetako idazleen aipuak, zenduenak ala aktiboenak, eta nekez, aldiz, euskaraz zerbait idatzi dutenenak dagokion gai edo hariari buruz. Eta, gutxi horietan, edo zenduen aipuak dira, edo gure artean halako ikono bihurtu diren bizpahirurenak, edo saiakeragile bakoitzaren inguru estuko lagun batenak. Balirudike euskaraz ez duela deus jakin gai unibertsal horietaz, saiakeragile bakoitzak bere ekarpena egin arte. Badago salbuespenik, eta arestiko nire irakurketetako bat aipatu nahi dut gustura: Jasone Mitxelorenaren *Auzolanaren kultura* alegia, non bai erdaretaiko bai euskarazko ekarri anitz aipatzen den.

Zergatik ote? Elkarri irakurtzen ez diotelako? Sinestezina. Edo, akaso, Hernandez Abaituak bere *Narrazio tailerran* dioenarengatik: “Zer gaineratu dio literatura unibertsalari munduan euskal idazle ezagunena den Bernardo Atxagak? Ezer ez [...]”. Eus-



JOSU SANTESTEBAN

kal Literaturaren Historiara pasatu da, baina ez Literatura Unibertsalaren Historiara?”. Hau da, gure arlorra joanik, ez dagoelako euskal saiakeragileetan mundura ekarpen propiorik egin duen inor? Zier to, gehienbat, mundu zabaleko bertze pentsalari edo idazleen ideiak euskarara ekarri baizik ez dute egin, politago edo zabarrago. Holaxe dela erran dezakegu, baina lotsarik gabe: ez da gutxiesteko lana inondik ere, eta horrelakoak behar ditugu.

Edo maltzurrago pentsatu beharko? Izanen ote da saiakeragileek euren baitan dara-

« Bada, deigarri suertatzen zait bertze pentsalari edo idazleen mintzoak nork bere harira ekartzerakoan, erruz agertzen direla bertze hizkuntzetako idazleen aipuak, zenduenak ala aktiboenak, eta nekez, aldiz, euskaraz zerbait idatzi dutenenak dagokion gai edo hariari buruz »


maten nartziso txiki-handi horrengatik? Erran nahi baita, nork bere burua ferekatu nahi duelako ote da, norbera izanen bailitzan dagokion arloko ideiak mundutik gurera ekarri dizkigun lehena?

Dena den zergatia, deitoratu baizik ezin dut egin jokamolde hori, bi arrazoiengatik. Bata, euskarazko saiakeren irakurle gisa, interesatzen zaidalako jakitea bertze inork idatzi duen ala ez euskaraz eskuartean dudan gaiari buruz edo horrekin nola edo hala loturik dagoen zerbait. Eta bigarrenik, euskal komunitaterik eraiki nahi badugu, hiztunona ez ezik, pentsalariena, saiakeragileena ere egin beharko liguketelako ikusgarri idazleek beraiek euren lanean: nahi ala ez elkarrekiko euren sinpatia, inbidia, amodio, gorroto edota ezinikusiekin, beraiek eratzen doazen euskal pentsalarien komunitatea zergatik ez egin ikusgarri? ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Txondorra erretegia

Harpidedun batentzat
lau lagunentzako afaria

Bizkaia etorbidea, 9/9
Arrasate GIPUZKOA

www.txondorra-sagardotegi.com

1




Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Zazpikoloroa

5 CD opari

Katxiporreta Koop.E.

www.katxiporreta.com

3



Kaotiko

zuzeneko indarra

5 CD-DVD opari

www.baga-biga.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2310. Argia)

ANDRA MARI jatetxea

- Jose Maria Segurola Amutxastegi (Gasteiz)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Joxe Inaxio Mantzisor (Zumaia)
- Miguel Uriarte Ballarena (Barañain)
- Maria Isabel Aranburu Garcia (Arrasate)
- Arrate Iriondo Arregi (Eibar)

ESAIT sudadera

- Idoia Jauregi Pikabea (Bilbo)
- Begoña Urreisti Esnal (Mutriku)

GAIZKA PEÑAFIEL lagunartean

- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Julen Goia Eraunzetamurgil (Donostia)
- Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)
- Mikel Sarriegi Etchezarreta (Beasain)
- Joxan Apaolaza Bernedo (Oizartun)

KIROLAZ BADAKIT

- Mari Jose Irizar Aranburu (Donostia)
- Maria Dolores Uriarte Ballarena (Barakaldo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



euskal kulturaren

URTEKARIA



Euskal kulturaren urtekaria

2011-2012



- Euskal kultur arloko joeren aurrerapena
- Urteko hamar pertsona garrantzitsuenak
- Azken hilabeteetako adierazpenik esanguratsuenak
- Kulturaren esparru bakoitzean jazotakoak, sailez sail
- Datu eta estatistika interesgarriak
- Bukaeran, gida praktikoa, kultur jardueretako pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko kontaktu bideekin

ESKURA EZAZU
943 37 15 45
argia.com/denda
denda@argia.com

